



# ERRENTERIA

HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

PARTE HARTZE PROZESUAREN  
EMAITZAK

Errenteria y

El Plan General  
de Ordenación  
Urbana

BULTZATZAILEA



**ERRETERIA**  
UDALA

TALDE TEKNIKOA

HIRITIK **AT**

# AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
MEMORIA.....	6
PARTE HARTZE PROZESUAREN EMAITZAK.....	15
FORO TEMATIKOAK.....	17
AUZO DERIBAK.....	28
KAPUTXINOAK.....	30
ALABERGA.....	32
GALTZARABORDA-IGANTZI.....	34
AGUSTINAK.....	36
GAZTAÑO:.....	38
ERDIALDEA.....	40
IZTIETA.....	41
OLIBET-ETXEVERRI.....	42
GABIERROTA:.....	43
FANDERIA.....	45
LARTZABAL.....	47
ZAMALBIDE.....	47
BERAUN.....	49
PONTIKA.....	52
INKESTAREN EMAITZAK.....	54
ONDORIO NAGUSIAK.....	84
ERANSKINAK (dokumentazioa gazteleraz).....	89
Altzate; Existe una investigación científica (ANEXO 1).....	90
Tomás Lopez, está abonada una vía (ANEXO 2).....	92
El Avance debe prever los riesgos derivados de la Modificación Climática.(ANEXO 3).....	118
Propuesta asociación vecinal de Agustinas.....	120





# SARRERA

Esku artean duzuen, Errenteriako Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) Aurrerapen faseari dagokion parte hartze prozesu txostena da. Aipatu prozesua, Plan Orokorra osatzeari begira aurre-ikusten den eztabaida publiko nagusia da. Txosten honek, ekainetik irailera burutu den fase honetako herritarren ekarpenak sistematizatzen ditu.

Txostenak bada, bi helburu eta hortaz zati berezitu ditu:

- **Memoria:** Lehenik, HAPO-ari dagokion parte hartze araudiaren baitan (2020.11.19an dekretu bidez onartua) aktibatu diren parte hartze estrategia eta bide zehatzak deskribatuko dira. Modu narratibo eta deskriptiboan egingo da lehen ariketa hau. Azalpen honekin lortuko da:
  - HAPO-ari begirako prozesuan, hiritarren parte hartzerako ezinbestean ireki behar diren kanal eta bitarteko guztiak abiatu direla justifikatu eta hau nola egin den azaldu
  - Bigarren atalean sistematizatuko diren ekarpen guztien jatorria argitu. Hau da, material enpirikoak, datuak, kuantitatibo zein kualitatiboak zein metodopean ekoiztu diren mahaigaineratu
- **Parte Hartze Prozesuaren ekarpenen sistematizazioa:** Hau da txostenaren funtsezko atala. Hemen parte hartze prozesuaren ekarpenak sistematizatuko dira. Hauek, Aurrerakin dokumentua dute oinarri, hortaz honi begirako babes edo alternatibak planteatzen dituzte kasu gehienetan. Beste zenbaitetan Aurrerakinak lantzen ez dituen aferen bueltan deitzen da atentzioa. Metodo ezberdinez jaso diren ekarpen guzti hauek (foro presentzialak, galdetegi telematikoak eta auzo-deribak), antolatu, aztertu eta ondorio nagusi bilakatu dira. Ezinbestean, eta hiritar partaidetzarekin konpromisoa badugu, HAPO-aren erredakzio fasean kontuan hartu beharko diren ekarpenak

Goaz bada, 2040-ko Errenteria eraikitza bidean, mami handia duen hiritar eztabaidan murgiltzera.



# MEMORIA

2020.11.19.an, Covid19-aren testuinguru ezegonkorrean eta dekretu bidez, Errenteriako Udalak parte hartzeari bide emango dion araudi markoa onartu zuen: “Errenteriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren (HAPO) berrikustearen Herritarren Partaidetza Programa”  
[https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/20201119\\_HAPOa\\_formulatzeko\\_erabakia.pdf](https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/20201119_HAPOa_formulatzeko_erabakia.pdf)

HAPO-aren garrantzia estrategikoaz jakitun, bertan xede nagusi bezala zehazten da;

***“Hiri Antolamenduko Plan Orokorra udal-proiektu nagusia da; izan ere, Errenteriaren etorkizuna bermatzen duten ekimen guztiak hirigintzaren ikuspegitik txertatu behar ditu. Horretarako, Udalak, arau-esparrua zabalduz, herritar guztien inplikazioa eta konpromisoa bultzatuko duten beharrezko espazioak sortzea proposatzen du, prozesuaren ondoriozko Plan Orokorra herritar guztientzako plana izan dadin”***

**(GAO, 2020.12.22)**

Honez gain helburu espezifikoak ere zerrendatzen dira (GAO, 2020.12.22):

- HAPOaren eraginkortasuna handitu: Herritarrek politika publikoen definizioan parte hartzeak eragin positiboa izan ohi du eraginkortasunean, errealitatea ezagutzeak diagnostiko zehatzagoak egiten laguntzen baitu
- Legitimitatea handitu: Herritarren parte-hartzea egoki gauzatzen den prozesuetan legitimitatea ere indartuta ateratzen da
- Herritarrak ahaldundu arlo publikoaren kudeaketan
- Izpiritu komunitarioa indartu: Ekarpenak banakakoak izan arren, prozesu honek kolektiboa izateko bokazioa baitu hiriaren eta lurraldearen etorkizunari buruzko eztabaidan

Aurrerakin fasearen parte hartzeari dagokionez, minimo hauek ezartzen zituen (Eusko legebiltzarraren, ekainak 30e-ko 2/2006 Zoru eta Hirigintza legearen aterki-pean). Hauetako batzuk gauzatzeko ekintzak ere aurre-ikusten zituen, zehaztasun maila handiko araudia beraz:

- Herritarren parte-hartzerako programaren prestaketa
- Herritarren parte-hartzerako programa onartzea
- Herritarren mahaietarako dokumentua prestatzea
- Herritarren mahaietarako dibulgazio materiala: Herritar mahai, lurralde batzorde edota ordeko alderdien mahaiekin kontrastatu edota bideratu beharrekoak
- Aurrerakin dokumentuaren dibulgazio agiriak prestatzea : Planeamenduaren Aholku Kontseiluan kontrastatu edota bideratu beharrekoak

- Gizarteratze orokorra: Erakusketak/Informazio saioen bidez sozializatu beharreko materiala
- Parte-hartze espezifikoak: Parte-hartze ekintza kolektiboak, HAPOaren berrikuspena dagoen puntura eta pandemiaren ondoriozko egoera orokorrera egokituak; proposamenak ireki eta biltzeko ekintzak Horietan landutako edukiek iradokizunen txostena handituko dute
- Iradokizunak eta ekarpenak prozesuan
- Gauzaturiko prozesuen txostenak
- Alorkako txostenak

Prozesu honen ostean parte hartze txostena (gauzaturikoaren memoria eta arlokako txostena) ekoiztea aurre-ikusten da. **Dokumentu honek beteko lukeen pausoa.** Honen ostean, eta Ingurumen-organoaren irismen dokumentua jasota, Plana formulatzeko irizpideak eta helburuak berretsi beharko dira. Hauen itzulketa eginez parte hartzaileei, Lurralde batzordea edo ordezeko alderdien mahaiari eta amaitzeko Udaltzarretik pasaz aipatu irizpide/helburuak. Honekin, 1.Fasea itxiko litzateke (Covid19-ak ezarritako baldintzapenak medio, aurre-ikusitako epeak atzeratu egin behar izan dira).

Abiapuntu edo araudi aterki honetatik abiatuta hauek izan dira parte hartze prozesu konkretuan aurrera eraman diren ekimenak. Parte hartze eraginkor eta kalitatezko bati begira ireki diren kanalak eta lanketak:

- Parte Hartze prozesuaren zehaztapena
- Diagnostikoa eta herritar kontrastea
- Dokumentuen lanketa eta itzulera pedagogikoa
- Saio ireki eta zabalak: Foro tematikoak
- Auzo Deribak
- On Line parte hartzea: Galdetegia
- Prozesuaren itxierako saio ireki eta zabala
- Komunikazioa

Hau izan da Hiritik At Koop.-en lana: Parte Hartze prozesu eraginkor bat gauzatzeko bidelagun izatea. Noski Errenteriako Udalarekin batera eta Errenteriako herri eragile ezberdinen elkar-lanari esker. Goazen bada, bide hauetako bakoitzean egindakoa azaldu eta eduki duen inpaktua zehaztera.

## Parte hartze prozesuaren zehaztapena

Aipaturiko aterkiaren baitan, lehen lana, egitekoak zehaztu eta kronograma eraikitzea izan da. Hiritik At, Hirigintza Saila (Eneko del Amo zinegotzia eta Xabier Agirre udal Arkitektoa), Parte Hartze Saila (Itziar Ostolaza zinegotzia eta Mikel Goñi teknikaria), prozesuaren mamia Ekaina eta Uztaileko hilabeteetan garatzea onartu da.

Hauk izan dira adosturiko kronogramaren lerro nagusiak.

ERRENTERIA HAPO PARTE HARTZEA		EKAINA					UZTAILA				ABUZTUA				IRAILA			
		I	II	III	IV	V	I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II	III	IV
Dokumentazio ekoizpena	Gald. emaitzak																	
	Tx. Pedagogikoa																	
	Galdetegia																	
	Diseinua																	
	Itzulpena																	
Barne lanketa	Alderdi politikoei																	
	Lurralde Batzordea																	
Ekimen Publikoak	Esposizio Fasea																	
	Prentsaurrekoa																	
	Galdetegia zabaldu																	
Parte Hartzea	Aurre lanketa																	
	Jardunaldiak																	
	Alderdiekin saioak																	
	Deribak																	
Txostengintza	Sistematizazioa																	
	Azken txostena																	
Komunikazioa	Ataria Ireki																	
	Euskarriak																	

(\* ) Gorri lausoak prozesua adierazten du, gorri intentsioagoak egitekoaren amaiera data

Kanpora begira, honako forma sinplifikatu hau hartu du;

EKAINAK 22tik UZTAILAREN 14ra  
del 22 de JUNIO al 14 DE JULIO

## INKESTA DIGITALA - ENCUESTA DIGITAL

EKAINAK 28,29,30 JUNIO

### FOROAK- FOROS

#### EK28. ASTELEHENA/LUNES

16.30 Kultura euskara, kirola osasuna  
*Cultura euskara, deporte y salud*

18.30 Mugikortasuna irigarritasuna  
*Movilidad y accesibilidad*

#### EK29. ASTEARTEA/MARTES

16.30 Garapen ekonomikoa  
*Desarrollo económico*

18.30 Kohesio soziala zaintza eta etxebizitza  
*Cohesión social, cuidados y vivienda*

#### EK30. ASTEAZKENA/MIÉRCOLES

18:30 Klima, ingurugiroa eta hiri metabolismoa  
*Clima, medioambiente y metabolismo urbano*

UZTAILAK 5,6,7,8,12,13,14 JULIO

### AUZO DERIBAK- DERIVAS BARRIALES

#### Uzt5. ASTELEHENA/LUNES

Kaputxinos + Alaberga

#### Uzt6. ASTEARTEA/MARTES

Galtzaraborda + Igantzi

#### Uzt7. ASTEAZKENA/MIÉRCOLES

Agustinak + Gaztaño

#### Uzt8. OSTEGUNA/JUEVES

Erdialdea + Iztietia + Olibet

#### Uzt12. ASTELEHENA/LUNES

Lartzabal+ Fanderia+ Gabierrota

#### Uzt13. ASTEARTEA/MARTES

Zamalbide

#### Uzt 14. ASTEAZKENA/MIÉRCOLES

Beraun eta Pontika

17:30-19:00

EKA/JUN  
28

IRA/SEPT  
20

AURKEZPEN PUBLIKOKO EPEA / PERIODO DE PRESENTACIÓN PÚBLICA

PARTE-HARTZE DIGITALA / PARTICIPACIÓN DIGITAL

PARTE-HARTZE FOROAK ETA DERIBAK / FOROS PARTICIPATIVOS Y DERIVAS

ALEGAZIO EPEA/PERIODO DE ALEGACIONES

## Diagnostikoa eta herritar kontrastea

Aurrerakina formulatu ahal izateko, oinarri gisa, Errenteriako hiriaren diagnostikoa egin da. Hau udal eremu ezberdinetan landu ostean hiri azterketaren sintesi bat publiko egin eta web-gunean eskegi da, ([https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/PH\\_telematiko\\_dokumentuak/Diagnostikoa\\_eu.pdf](https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/PH_telematiko_dokumentuak/Diagnostikoa_eu.pdf)). Hau hiritarrei helarazi zaie HAPO tresna ulertzeko bideo pedagogiko batzuekin batera. Honekin egindako hiri diagnostikoari (Aurrerakinaren oinarria) hiritarren ekarpenak gehitzea bilatu da.

Diagnostikoari ekarpenak egiteko 73 galdetegi jaso dira. Ezbairik gabe, diagnostikoa bera eta HAPO-a idazteko abiapuntua asko aberastu duen ariketa. Hiritik At-ek, erantzun guzti horiek jaso eta sistematizatu ditu "HAPO DIAGNOSTIKOA: Diagnostikoaren inguruko galdetegiaren erantzun txostena" osatuz.

Bertan jasotako ideiei eta hiritar ekarpen asko parte hartze prozesuan ere agertuko dira. Gure gomendioa, beraz, galdetegiaren emaitza txosten hau ere kontuan hartua izatea HAPO-aren helburu/irizpide eta idazketan.

## Dokumentuen lanketa eta itzulera pedagogikoa

Paraleloki, lan garrantzitsua, Santi Peñalba-k gidaturiko lan-taldeak eginiko Aurrerakina barneratzea izan da. Behin betiko aurrerakinik gabe, lehen bertsioaz lan egin behar izan da hasiera batean (behin betiko Aurrerakina 2020.06.28.an GAO-n publikatu zen).

Honela, edukiaz busti eta arazo gabe azaldu ahal izateko ahalduntze ariketa burutu zen. Parte-hartze espazio ezberdinak modu eraginkorrean dinamizatzeko ezinbesteko murgilketa. Era berean, parte hartzea ahalbidetzeko, errazteko, eraginkortzeko, dokumentu bisual eta pedagogikoa izan da murgiltze ariketa honen emaitza. Honela, Aurrerakinak eduki behar dituen zehaztapen eta lengoai urbanistikoa sinpletu eta edonork ulertu ahal izateko bitartekoa sortu genuen. Hau, material guztiarekin batera publiko egin eta web-gunean eskegi da ([https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/Aurrerapena/HAPO\\_Aurrerakin\\_lab\\_eu.pdf](https://static.errenteria.eus/web/eu/hapoaberritzen/Aurrerapena/HAPO_Aurrerakin_lab_eu.pdf)).

Parte Hartze saioetara gonbidaturiko elkarte/hiritarrei bidali zaie dokumentu hau, prozesuan zehar lanketarako erreferentzia bat izan dena.

## Saio ireki eta zabalak: Foro tematikoak

Foroak Aurrerakina lantzeko aurrez aurreko parte hartzerako lehen abagunea izan ziren. Hauek, Errenteriako Plan Estrategikoak zehazten dituen jardun eremuen baitan antolatu genituen. Hauek dira, 28, 29 eta 30 egunetan Merkatu Zaharren burutu ziren saioetako gai eta parte hartze zenbakiak

SAIOA	DATA	ORDUA	PARTAIDEAK
Kultura, euskara kirola eta osasuna	2021/06/28	16.30-18.00	4
Mugikortasuna eta irisgarritasuna	2021/06/28	18.30-20.00	4
Garapen ekonomikoa	2021/06/29	16.30-18.00	3
Gizarte-kohesioa, zaintza eta etxebizitza	2021/06/29	18.30-20.00	2
Klima-aldaketa, ingurumen-arriskua eta hiri-metabolismoa	2021/06/30	18.30-20.00	5

## Auzo Deribak

Aurrerakinaren hiri planteamendua auzoz auzo azaldu eta eztabaidatzeko apustua egin da. Honetarako Errenteriako 15 auzoak antolatu eta 7 hiri deribatan auzo guztietan egon gara. Hauek dira eginiko deribak, datak eta partaideak

AUZOAK	DATA	ORDUA	PARTAIDEAK
Kaputxinoak eta Alaberga	2021/07/05	17.30-19.00	7
Galtzaraborda	2021/07/06	17.30-19.00	7
Agustinak eta Gaztaño	2021/07/07	17.30-19.00	8
Iztietia-Zentroa-Olibet/ etxe berri	2021/07/08	17.30-19.00	7
Gabierrota-Fanderia- Lartzabal	2021/07/12	17.30-19.00	3
Zamalbide	2021/07/13	17.30-19.00	3
Beraun-Pontika	2021/07/14	17.30-19.00	6

## On Line parte hartzea: Galdetegia

Aurrerakinak planteaturikoak modu ez presentzian baloratzeko kanala ere ireki da. Galdetegi bat osatu da, norberak material guztiak eskutan eta etxeko lasaitasunarekin, nahi beste denbora hartzeko ekarpenak egiteko momentuan.

Galdetegia Ekainaren 24-tik Uztailaren 14 arte egon da irekia. Guztira 25 erantzun jaso dira. Aurrerago jasotzen dira bertan batutako emaitzak.

## Komunikazioa

Lanketa komunikatiboa udalaren esku geratu da. Ahalegin komunikatiboa nabaria izan da:

- Tokiko prentsan agerraldiak eta prentsaurrekoak
- Udal web gunean ataria ireki da
- Saio guztiei begira (foro zein deribak) gonbidapen espezifikoak bidali dira edo aurrez-aurre egin zaie gonbidapena:
  - Hiriko elkarteei
  - Aholku kontseiluetan parte hartzen duten hiritar/elkarteei
  - Galdetegia erantzun duten hiritarrei
  - Auzo Elkarteei

## Prozesuaren itxierako saio ireki eta zabala

Prozesuari amaiera egoki bat emateko, azken saio ireki bat egin da. Honetan, hiritarrak aurrez aurre bildu dira Aurrerakina proposatu duen talde teknikoarekin. Ekainetik irailera egindako prozesuak (materialen zabalpenak/foroak/deribak/galdetegiak) interesa izan duten hiritarren murgiltzea ahalbidetu du eta horrela saio hau egiterako ahalduz prozesua nabaria izan da.

Merkatuzarren buruturiko saioan Hiritik At-en dinamizazioz, bertaraturiko hiritarrek Santi Peñalba arkitekto-urbanistarekin, zuzenean, honek eginiko Aurrerakinaren inguruko duda/ekarpen/adostasun/ez-adostasunak partekatze abagunea izan zuten. Prozesuan zehar agerturiko puntu nagusien sintesi gisa ulertu dezakegu saioa, hurrengo pausuetarako (HAPO-aren gida-lerroen onarpena) oso baliagarria gertatu dena.

SAIOA	DATA	ORDUA	PARTAIDEAK
Itxiera saioa aurrerakina proposatu duen talde teknikoarekin	2021/09/14	18.00-20.00	22

## Ekarpenenen sistematizazioa

Sistematizazio egokirako gakoetako bat, parte hartze saio bakoitzean mantenduriko metodoaren zorrotasuna izan da. Guztietan (foro zein deriba) sistematizazio fitxak eraman dira eta momentuan jasotakoa, hurrengo egunean pasa da garbira. Honek informazio bilketa metodiko eta ordenatua ahalbideratu du.

Honekin, uztaila, abuztua eta iraila izan dira idazketarako hilabeteak. Esan diren denak hitzez hitz jasotzeak zentzurik ez du, nahasmen handiagoa sortuko luke lagundu baino. Aitzitik, ezinbestekoa da, gure hitzekin bada ere, agertu diren ideiei eta xehetasun denak biltzea. Hori zor zaio parte hartze prozesuan bere denbora jarri duenari. Sintesi ariketa hau honela egin da:

- Aurrerakinak ezarritako hiri kategoriak: Aurrerakinak hiri eredia proposatzeko erabili dituen eremuak lehenetsi dira informazioa antolatze bakoetako "kaxoi" gisa (Mugikortasuna, irisgarritasuna, espazio publikoa, etab.)
- Fitxa bidezko bilketa: Foro eta deribetan fitxa bidez egin da lan. Honela gai batzuk partaide denek landu dituzte. Hauen gainean jaso diren iritziak bildu eta laburtu dira oinarritzko ideiarako. Hauek beherago egindako tauletan jasoak dira
- Adostasun maila: Partaideek Aurrerakinak eginiko proposamenen baitan zuten iritzia nolabait kuantifikatzeko "adostasun maila" metodoa erabili da. Honela 1 adostasun osoa eta 5 batere ados izanik, partaideek saio ezberdinetan balorazioak egin dituzte. Ikusiko dituzuen zenbakiak balorazio hauen batz bestekoak dira
- Galdetegiak: Erantzunak galderatik des-lotzeak erantzun askok zentzua galtzea ekarriko luke. Honela galdetegiaren erantzunak galderari lotuak eta gehiegi aldatu gabe jaso dira
- Ondorioak: Bukatzeko informazio eta prozesu konplexu honetatik, talde tekniko gisa atera ditugun ondorio nagusiak mahai gaineratzen ditugu. Hauek ez dute aurreko guztiaren xehetasuna ezabatzen baina ideiei batzuek azpimarratzen laguntzen dute



## Balorazioa

Talde teknikitik eta prozesuaren balorazioari begira; honako lau idei nagusi baloratu nahiko genituzke.

### Diagnostikoa abiapuntu ona izan da

Aurrerakinaren oinarri gisa eta parte hartze prozesua gidatzeko lehen argazki ona izan da. Modu berezian baloratzen da egin den ahalegina hiritarrekin kontrastatzeko. Diagnostika hobetzeaz gain parte hartze prozesuari berari ekarpena egi dio, eztabaida irekitzen lagundu baitu eta Aurrerakinari zein prozesuari zilegitasuna eman dio.

### Foroak: Kualitatiboa ondo, kuantitatiboa eskas

Aurrerakinaren proposamenetatik hasita hiriaren inguruko eztabaida, ekarpen eta dudak modu presentzial eta zabalean lantzeko pentsatu ziren. Beti ere parte hartze prozesuaren momentua kontuan izanda eta Aurrerakin dokumentuari ekarpenak (propositibo zein kontrako) egiteari begira.

Lerro buruan jaso bezala, parte hartzea kuantitatiboki oso eskasa izan zen zeuden helburuei begira. Kualitatiboki ona, izan ere etorri zen jendeak landua zuen hiria, proposamenak zituen eta formatu txikiak lagundu zuen horiek denak ateratzen.

Parte Hartze prozesuari bere osotasunean begiratuz gero, hurrengo baterako uste dugu eraginkorragoa izango dela, arlokako saio hauek, hiri osoa lantzeko bokazioa dutenak, auzo-txangoen ostean egitea. Izan ere, auzoan modu gertuagoan lantzen dira proposamenak eta argitu dudak ondorengo eztabaida zabalagorako hiritarrak ahaldunduz.

Akaso, parte hartze eskasaren beste arrazoi bat deialdiaren epeak izan ziren.

### Auzo Txangoak: Bete betean asmatu da

Filosofia eta metodologia aldetik, zein parte hartze prozesuaren xedeei begira ere Auzo txangoekin bete betean asmatu dela esan genezake.

- Kuantitatiboki: Auzoetara joanez, denetatik pasaz, ahalbidetu da hiritarrari parte hartzeko esparru gertuagoko bat. Era berean auzo elkarreak zuzenean interpelatu dira. Honen ondorio, saio denak batuz zenbakia ona izan da
- Kualitatiboki: Errenteria "auzoen hiri bat dela nabaritu da. Horrela auzo gehienetan hirigintza iraunkorki lantzen dela nabaritu da eta horrela proposamenak, eztabaidak eta ekarpenak oso aberatsak izan dira

### Galdetegiak

Zintzoki, uste baina oihartzun gutxiago izan du galdetegiak. Arreta handiz prestatua, gaika erantzuteko aukera ematen zuena, irudiz lagundurik, test formatuaz lagundurik... Uste baina erantzun gutxiago jaso dira. Galdetegia prozesuaren euskarri paralelo gisa ikusi zen, prozesuan ekarpenak egin ahal izateko ate irekia.

Dena den 25 galdetegi jaso dira eta uste dugu ekarpen kualitatibo ona izan dela.

## Balorazio globala

Dena hartuta uste dugu parte hartze prozesua ona izan dela. Parte hartzeko kanal ugari jarri dira hiritarren eskura, auzoetara hurbildu da prozesua eta ekarpenak asko eta aberatsak izan dira. Prozesua alegazio epeekin bat joan da eta horrela, atera diren zenbait eskaera prozesuan bide administratibotik egiteko aukera ere beti egon da irekia.

Honela, HAPO-aren berrikuspen prozesurako, hiritarren ekarpenez osaturiko ezinbesteko txostentzat hartzen dugu honakoa. Zuzenean parte hartu duten hiritar askoren ekarpen aberatsak dituen eta zeharka ere ekarpena egin duten beste herritar andanarena. Hauek zorrotz baloratu eta dagokien kasuan, etorkizuneko HAPO-an integratzen joatea tokatuko da.





# PARTE HARTZE PROZESUAREN EMAITZAK

Ikusi dugunez parte hartze kanalak ugariak izan dira. Galdetegitik, gaikako foroetara. Auzoz-auzoetako deribetatik udaleko alderdien ekarpenetara. Honek esan nahi du, informazioak testuinguru ezberdinetan ekoiztuak izan direla. Dena den, parte hartze eremu denetan, metodologia ezberdina izan arren, sistematika berdin bat erabili da hiria aztertzeke.

Honela, emaitzak parte hartze kanal nagusien arabera bilduko dira:

- Foroen emaitza
- Deribak
- Galdetegiaren emaitzak

Nahiz eta tarteka Plan Estrategikoaren ardatzak presente egon diren prozesuan (foroetan batez ere), emaitzak Aurrerakinaren kategorien baitan antolatzea ebatzi dugu. Honek ondorio globalak atera eta konparaketak egitea ahalbidetuko du. Gainera, ideiak, kontraktotasun, elementu osagarri, hausnarketa edota aldarrikapen marasma guztia HAPO-aren formulaziorako ere erabilgarriagoa izango da honela antolatua. Hauek izan dira:

- Auzo Bihotzak: Aurrerakinean duten garrantziagatik bereziki landu dira, Espazio Publikoaren azpi atal bezala uler badaiteke ere
- Espazio Publikoa
- Mugikortasuna eta Irisgarritasuna
- Hiri Alternatibak (hemen barruan etxebizitza landu da bereziki)
- Ekipamenduak
- Garapen ekonomikoa
- Espazio libre/berde sarea
- Landaren ordenamendua
- Ondarea
- Gehikuntzak: Aurrerakinak jasotzen ez zituen ekarpenak atal honetan jaso dira. Beste eremuetan sar zitezkeen arren, azpimarra egiteko atal berezitua eman zaie hauei


Aipatzen dugun honen salbuespena galdetegiak dira. Egia da kategoriak mantentzen direla baina galderari loturik bilduko ditugu emaitzak, ulergarriagoak egiteko.

Bukatzeko; analisitik alorrez alor ondorio nagusi batzuk atera ditugu. Amaieran Eranskinen zerrenda atxiki dugu, inork kontsulta edo atalen batean sakondu nahiko balu, nora jo argi eduki dezan.

## Ekarpenen sistematizazioa

Gaika hauxe izango da jasotze eskema;

- Printzipioen inguruan: Aurrerakinak hiri alorra lantzeko planteatzen duen ikuspegi eta idei indar nagusien inguruan jardun gara. Eztabaida sustatu da norabide horien baitan. Hauen inguruko ekarpen eta hausnarketa nagusiak jaso dira lehen zati honetan.
- Esku-hartze konkretuen gainean: Sistematikoak izateko xedez, parte hartze eremu guztietan fitxak erabili ditugu. Huetan esku-hartze nagusiak jaso ditugu. Horietan 2 motatako lanketa egin da: 1) Adostasun maila kuantifikatu (1 adostasun maila gorena izanik, 5 ez adostasun gorena). 2) Ondoren esku-hartzeari ekarpenak eta hausnarketak gehitzeko parada izan da. Bi ekarpen mota horiek jasoko dira eremu/ esku-hartze bakoitzean. Esku-hartzeen formulazio garatua fitxetan dago, hemen lerroburura ekarri dugu





## FORO TEMATIKOAK

Esan bezala 28-tik 30-era 5 foro presentzial egin dira Merkatuzarren. Hauetan 18 pertsonak hartu dute parte. Argitu den arren, esan bertan Plan Estrategikoaren ildoak hautatu zirela hiriaren eta aurrerakinaren lanketa egiteko. Hala ere, hemen Aurrerakinaren kategorien baitan integratu ditugu. Arrazoi nagusia: Ekarpn modu sistematikoan jasoak izatea, metodo ezberdinez baina kategoria berdinetan ondorio globalak atera ahal izateko. Honekin batera, Aurrerakinaren eskemari egokitzeak, honen egileei ere ekarpn txertatzea erraztea espero da.

Sistematizatorako honako taula erabili da:

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA (*)
Aurrerakinak proposatu dituen esku hartze edo alternatibaz aritu gara kasu askotan, beste batzuk herritarrek mahaigaineratu dituzte. Hemen hau zein den izendatzen da	Foroan esku-hartzearen inguruan egindako ekarpn 2 moduz jaso dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Fitxa bidez: Partaideek esku artean fitxa eduki dute zeinetan xehetasun denak islatzeko balio izan dien</li> <li>• Eztabaidan ahoz esandakoak, dinamizatzaileok jaso ditugu</li> </ul>	Balorazio kuantitatiboa ren batzbestekoa
	Aurrerakinak alternatiba ezberdinak proposatu dituen kasuetan ezberdinen artean bozkatzera (edo berriak proposatzera) gonbidatu da. Kasu hauetan "Alt. X" ipini eta aldeko bozkak jarri dira ondoko zutabeen	

*Ezinbestekoa da iritziak modu batean "kuantifikatzea". Esku hartze bakoitza baloratu dute parte hartzaileek eskuan zuten fitxan bertan. 5 guztiz ez-ados izanik eta 1 oso ados.*

Honela ba, alorrez alor.


## ESPazio PUBLIKOA: AUZOEN ERRETERIA ZENTRO-ANITZ BATERANTZ

### Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Auzo Bihotzak</b>	-Ez dira soilik espazio publikoak indartu behar Auzoetan. Bitarteko humano eta ekonomikoak jarri behar dira espazio horien bueltan ekintzak dinamizatzeko -Espazio estaliak egon behar dute
<b>Des-zentralizazio espazialek harago</b>	-Auzo bihotzak sortzea ongi ikusten da baina horrekin batera kultura, zerbitzuak etab- en deszentralizazioa eman behar da (Atlantikaldia, herriko jaiak,...) -Honekin, kontuz eduki behar da gainkostuak ez eragiten eta azpiegitura-zerbitzuak ez bikoizten. Azken finean auzoak bai baina Erreteria bat da eta hori ere landu behar da
<b>Irisgarritasuna bermatzea</b>	-Toki hauetara oinez modu egokian iristea bermatu behar da, kota aldaketak zainduz -Bide honetan egindakoa eta proposamena bide onean da

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA (1: oso ados/ 5: guztiz desados)
<b>Auzo Bihotz bat auzo bakoitzean</b>	-Auzoen garapena sustatzeaz gain komeniko litzateke auzoen arteko oreka bat bilatzea proiektuak eta ekintzak lehenesteko orduan -Kezka sortzen du planteamendu honek: batetik, ea honek ez duen bultzatuko herri bezala kohesioa galtzea; eta bestetik auzo bakoitzeko azpiegiturak indartzeak gastua handitzea ekarriko ote duen -Auzo bakoitzeko biztanleekin kontrastatu behar da zein den Auzo Bihotz egokiena -Auzo bizitzarentzat oso interesgarria da baina ez oso jasangarria -Auzoetan zerbitzu minimoak jartzea bikain. Hala ere hainbat auzotan laguntza beharko zen horretarako. Adibidez komertzioak sustatzeko garaian, ez badira errentagarri inork ez ditu irekiko; sektore publikoak gertuko ekonomian esku-hartze zuzena? Izan daiteke -Komunitatea indartzeko eta sozialki sartzeko balioko badu ere zalantzak sortzen dira ea benetan jarduera ekonomikoa indartzeko balioko ote duen	2



## KONEKTIBITATE ONERAKO LAU ARDATZ: HURBILTASUNEKO HIRIA OINEZ

### Printzipioen inguruan

Ez da ekarpenik egon

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Trenaren lurperatzea Galtzarabordatik Fanderiara</b>	-Duen garrantzia estrategikoaz jabe. Dena baldintzatzen du eta oso esku-garrantzitsua da -Egingarritasunaren inguruan dudak	<b>1,3</b>

# IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA UDALERRIAN: ERRETERIA HURBIL, EROSO, INKLUSIBO ETA JASANGARRIA


## Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Bidegorriak kontrolatu</b>	-Sarea eta azpiegitura egitetik harago honen erabilpena kontrolatu behar da benetan funtzionala izateko
<b>Bizikleta</b>	-Bizikleta ekipamenduak behar dira: aparkaleku itxiak,.. - Bizikleta bideak bananduak izan behar dira, bestela ez dira erabiliko (oinezko eta bizikleta, kotxe eta bizikleta) -Zamalbiderekin lotura bermatu behar da

## Esku-hartze konkretuen gainean

AZPI EREMUAK	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Irisgarritasun unibertsala:</b>	<b>Gaztaño-Palaziozarra pasarela</b>	- Ez zaio zentzu askorik topatzen	<b>4</b>
	<b>Altzateko zubia</b>	-Ez egitearen ideia atera da: Zubia eta Altzateko urbanizazioa orokorrean: Hau zona berde bezala (padura) berreskuratzea nahi da -Klima aldaketa dela eta bi arrisku nagusi ikusten dira: batetik, itsasoaren kota igotzean ur azpian geratuko da parte bat; bestetik uholdeak datozenean zubian zakarra pilatu eta presa efektua egingo du -Ikerketa zientifiko bat dago ( <i>ERANSKINA 1</i> )	<b>Ez da baloratu</b>
	<b>Galtzarabordako estazio berritik gora "Hodia"</b>	-Ez da ikusten eskailera mekanikoak izatea, ez da irisgarria gurpildun aukientzat -Izogailu inklinatu bezala ongi ikusten da	<b>1,3</b>
<b>Motorrik gabeko mugikortasuna</b>	<b>Oinezko/txirrinda sarea lehenetsi</b>	-Bizikleta eta oinezkoen bidea konpartitua bada abiadura murriztu beharko da -Oso garrantzitsua izango da bidegorriak ongi seinalizatu eta erabilera kontrolatzea -Auzo guztietara iristea baldin bada helburua kontuan hartu Zamalbide ez dela Aurrerakinaren sarean agertzen -Bizikletari lehentasuna ematekotan argitu beharra dago bidegorriak zein funtzio duen. Mistoa da ala banandua? -Goialdean dauden eskola eta industriaguneekin loturak klabe, jende asko mugitzen da hara	<b>1,3</b>





	<b>Bidegorri mistoa, banandua ala kasuan kasu?</b>	-2016an egindako Bizikleta Planean eta egun egiten ari den berrikuspenean jasotzen da modu onena	<b>2</b>
	<b>Hirigunez gaindiko konexioak</b>	-Oinezko bideak ere lotu behar dira beste herrieekin -Bizikletaz landa eremua eta mendi inguruak ere lotu behar dira; hau hobe zehaztu behar da	<b>2</b>
<b>Garraio publikoa</b>	<b>Trenbidea lurperatzea</b>	-Oso ondo ikuste da nahiz eta eszeptizismo apur bat ere baden	<b>1</b>
	<b>Eraztun bikoitza</b>	-Barruko kaleetara bizilagunen sarrera (erosketak eramateko) eta emergentzietarako sarbideak bermatuta egon behar dira  -Tomas lopez, errepide-bide bat dago ordainduta ( <i>ERANSKINA 2</i> ). HAPO berriak kentzen du? Mantentzen du? ordaindutakoarekin zer?	<b>3,1</b>
<b>Mugikortasun motorizatua</b>	<b>“Bypass” Askatasunaren Martiriak</b>	-Oso interesgarri ikusten da. Baita prozedura ere (tartekako irekitzea, asteburuetan eta ikusi ea iraunkor bilaka daitekeen)  -Noski zenbait bizilagunei eragin diezaiekeen kaltea ere ulertzen da eta hori ere landu beharko litzateke	<b>2,5</b>
	<b>Aparkaleku berriak</b>	-Tomas Lopez kalean aparkaleku berriak aurreikusten dira. Berez hor jada badago berri bat, hori da ala beste bat?	<b>1,3</b>

# ETXEBIZITZA: HIRI-ORBANA GEHIAGO ZABALDU GABE ESKAINTZA HANDITZEA

## Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Beharren diagnostikoa</b>	-Anlisi bat egin beharra dago herritarren benetako beharra zein den eta haien zehar zein etxe tipologia egokitzen diren hobekien jakiteko: errenta baxua dute gehienek, zerbitzuetan lan egiten duen jendea da,... beraz duda agertu da: Azterketa hau ganoraz egin da proposamena egin aurretik?
<b>Etxebizitzen prezioak</b>	-Etxebizitza diagnostikoa egiteko ez dago argi zertan oinarritu den. Jendeak ez dituela horiek erosiko diote bizilagunek, ezingo dute. Udalerriko errenta baxua da. Etxebizitza librean ez dira gehiegi salduko. Publikoan ere ez, ez Errenteriarrek behintzat
<b>Zuzkidurazkoak</b>	-Apustua egin behar da zuzkidurazkoen begirakoak, nahiz eta hauek ez diren kontabilizatzen etxebizitza bezala
<b>Martxan dauden proiektuak</b>	Alzate, Gamongoa eta Esnabide jada garatzen ari dira eta kendu digute aukera horren inguruan eztabaidatzeko

## Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Esnabide</b>	-HAPOaren prozesuaren baitan landu behar da eta ez da ematen ari gaiaz hitz egiteko aukera -Esnabiden zona berde bat dago, Esnabide baserria hor dago utzia, eta hori txertatu beharra da	<b>4,5</b>
<b>Gamongoa</b>	-Egungo HAPOaren baitan landu da eta ez da eman gaiaz hitz egiteko aukera -Lur horiek dauden bezala mantendu behar dira	<b>5,5</b>
<b>Loidi</b>	-Baserrietako lur eremu aberatsak defendatu behar dira -Gune industrialak eta etxebizitzak erabilera nahasketa ez da egokia. Azken hamarkadetan ikusi da ez dela bateragarri eta orain berriz ere norabide hori hartzea ez da egokia	
<b>Tolare berri</b>	A:Etxebizitzak eta saihebidetza	
	B:Kontserbatzea	Zerbait izatekotan oso interbentzio minimoa. Bertako bizilagunek bertan bizitzeko, 3-4. Mejoratu zerbait, baina mantendu

<b>Zamalbide Berri</b>	A: Etxebizitzak eta saihebidia		
	B: Kontserbatzea		<b>1,1</b>
<b>Basanoaga</b>	A: Babes Publikoko Etxebizitzak		<b>1</b>
	B: Ekipamendu publikoa		<b>1</b>
<b>Galtzaraborda kiroldegi atzealdea</b>	A: Parkea kontserbatu		<b>1</b>
	B: Kiroldgia handitu		
	C: 40 etxebizitza (16 babesekoak eta 24 libreak)		
<b>Agustinak</b>	-Etxebizitzak egitekotan alokairuan egon behar dute		<b>5</b>
<b>Palaziozorra-Larretxipi</b>	A: erabilera ekonomikoa	-Ez dago informazio nahikoa aukeretako baten alde edo kontra egiteko -Ez bata ez beste, berdegunea -AHT ak eragingo du eremu horretan eta hori kontuan hartu beharra dago eta jarrera bat izan	<b>Ez da baloratu</b>
	B: mistoa, etxebizitza eta ekonomikoa		
	C: etxebizitzak		
<b>Altzate</b> <i>(zenbait partaideren argudioen dokumentazioa eranskinetan)</i>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-HAPOaren prozesuaren barruan berraztertu egin beharko litzateke</li> <li>-Padura bat da eremua eta mantendu beharko litzateke</li> <li>-Iztietak ez du berdegunerik, deus: Altzate izan zitekeen hori</li> <li>-Kontuan hartu behar da Aldaketa Klimatikoak sortuko duen egoera: uholde arriskuak</li> <li>-6m-tik behera lurra kontaminatuak daude</li> <li>-Herriari galdetu beharko litzaioke interbentzio honen inguruan</li> <li>-Proiektu hori gelditu beharko litzateke bai hala bai</li> </ul>		<b>5</b>

## EKIPAMENDUAK: MANTENTZEA ETA HOBETZEA

### Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Berria baino, daukaguna zaindu</b>	-Egungo instalazio, lokal, azpiegitura,...ondo mantentzea da logika egokiagoa. Berriak eraikitzea baino egungoak hobetzea -Aurrerakinarekin ados
<b>Beharren diagnostikoa</b>	-Egungo udalerriko beharren diagnostiko osatu bat behar dugu aurrera begira zer egin ongi asmatzeko
<b>Auzoak eta deszentralizazioa</b>	-Ez da beharrezkoa auzo guztietan kirol eta kultura ekipamenduak egotea. Auzo multzoak egin daitezke tarteka zenbait hiri zerbitzu/ekipamenduei begira -Auzoz auzo diagnostikoak egin eta lehentasunak markatu -Jaiak,sagardo eguna, dantza,... auzoetan barrena sakabanatzea aberasgarri izango da

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Agustinetako komentua</b>	-Bertako auzotarrei galdetzea interesgarri litzateke, jakiteko ea ze azpiegitura beharrezko den auzoan edo beharrezko den kultura azpiegitura bat -Bertako erabiltzaile eta auzoaren/auzotarren arteko harremana bermatzea izan behar du helburua	<b>1,7</b>
<b>Basanoagan ekipamendua</b>	-Eremu berde bat sortzea izan litekeela aipatzen da -Igerilekuak estali ahalko lirateke, honela urte guztian erabiltzeko aukera zabaltzeko	<b>2,3</b>
<b>Galtzarabordako kiroldegia handitzea</b>	-Etxebizitzak behintzat ez, zulo bat da -Parke berde batek bizia emango dio auzoari, inguruko birika berde bakarra da egungoa. Galtzaraborda eta Alaberga auzoak elkartzeko balioko luke	<b>3</b>
<b>Arramendiko aire zabaleko pistak</b>	-Natur ingurunearekin eta lasaitasunarekin uztargarri diren ekintzak izatea (yoga, taichi,...) -Zarata gabeko gune eta gune natural izaten jarraitzea garrantzitsua da	<b>2</b>
<b>Gamongoako ekipamendu partzelak</b>	-Zarata gabeko gune eta gune natural izaten jarraitzea garrantzitsua da -Natur ingurunearekin eta lasaitasunarekin uztargarri diren ekintzak izatea (yoga, taichi,...)	<b>2,5</b>

## ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA ETA LOKALA: ERAZTUN BERDERANTZ

### Printzipioen inguruan

Ez da ekarpenik egon

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Eraztun berdea eta Landaredia hirian integratu</b>	<p>-Berdea diogunean ez dugu jardirik nahi, benetako berdegune naturalak nahi ditugu</p> <p>-Aldapan dauden eremuak ezin daitezke Berdegune bezala hartu, ezin baitira erabili. Ez daude berdegune asko</p> <p>-Aurrerakinak beraz, berde gune asko dagoela dionean hiri eremuan... ez da guztiz egia. Izan ere "berde" horietako asko aldapa latzak dira, ez dira erabilgarriak</p>	<b>1</b>
<b>Berdeguneen agortzea</b>	-Parke berde gabe geratu da Errenteria, eta zaila da non eraiki (etxebizitzak, industria, ekipamenduak,...) erabakitzea. Kokapena da koxka	

## GARAPEN EKONOMIKOA: ERABILERA MISTOAK HIRIAN ETA LURZORU BERRIA INDUSTRIARAKO

### Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Dagoena berrerabili</b>	-Poligono guztiak beteta daude? Jada dauden asko hutsik eta salgai daude. Ingurukoak kontuan hartu dira? Ondoko herriein elkarlanean gestioatzea da bidea
<b>Energia komunitateak</b>	<p>-Ortu solarrak izan behar dira? Agian teilatuetan hobeto lursail berdeak bere horretan mantentzeko</p> <p>-Hasteko ekipamenduen gainean jarriko genituzke panelak eta gero ikusiko da. Lurreko ortu solarrak eginez gero lur eremu guztia jango lukete</p>
<b>Industrian kontuz</b>	Interesgarri industria oso handiak eta langile gutxikoak ez sustatzea. Jada martxan dagoen industrian beste industria mota bat 2.0, sustatu behar da
<b>Merkataritza txikia</b>	Mugikortasuna baino arazo handiagoa dute, jendea etorri egin behar da bertan erostera. Irisgarriagoa bada gehiago etorriko da jendea
<b>Auzo-bihotzetan komertzioa</b>	-Ez du ematen, auzo guztietan, gremio guztien dendak mantentzeko. Edo denek diru-laguntzak dituzte (sasi zerbitzu publiko gisa) edo bestela zaila: arropa denda, okindegi... Ez dira bideragarri

	-Lokal hutsekin zerbait egin behar da. Sektore digitala,...industriagunera eraman beharrean lokal hauetan Udal politika konkretu eta berezituak: udalak lokalak bereganatu eta utzi, edo udalak konpondu eta alokairuan laguntzak, adibidez
--	---

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU - HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA	
<b>Morrontxo</b>	<p>-Garapen ekonomikorako beharrezko dira industria guneak, ala ere Morrontxoko eremuan espazio berde eta babestu gehiegi kentzen da horretarako. Gainera babestutako eremua ere bada. Beste toki bat bilatzea proposatzen da</p> <p>-Lehen sektorearekin zerikusia duen jarduera ekonomikoarentzat leku egokia izan daiteke, eremuak daukan katalogazioagatik</p> <p>-AHTren emergentzia irteera hor inguruan doa eta Aurrerakinak ez du hori kontutan hartu</p>	<b>4</b>	
<b>Tolarieta</b>	<p>-Eremu logikoa dirudi: batetik, jada dauden industriaguneen jarraipen gisa; bestetik, errepideak ere badaudenez komunikazio aldetik ongi dago</p> <p>-Beldurra sortzen du horrelako interbentzio handi batek ea ez ote dien "superfizie handiko" komertzioei aukera emango bertan kokatzeko. Honek herriko komertzioari kalte egingo lioke</p>	<b>3,3</b>	
<b>Egiluze</b>	-Beharrezkoa bada ongi ikusten da berrantolaketa	<b>3,5</b>	
<b>Intzinarte</b>	-Kontserbatu eta ingurua txukuntzea da egokiena	<b>1</b>	
<b>Palaziozarra-Larretxipi</b>	A:erabilera ekonomikoa	-Gune teknologikoa eta eremu berde kalitatezkoa	<b>1,5</b>
	B: mistoa, etxebizitza eta ekonomikoa		
	C: etxebizitzak		
	Aukera berria	-ez bata ez bestea, eremu berdea	<b>II</b>

## LANDA - INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA

### Printzipioen inguruan

IDEI INDARRA	IRITZI ETA EKARPENAK/EKARPENAK
<b>Hiria humanizatzea</b>	-Printzipioek hori diote baina proposatzen diren interbentzio gehienek natura ez dute errespetatzen eta lurra artifizializatzen dute
<b>Aldaketa klimatikoa</b>	-Aurrerakinak aurreikusi behar ditu Aldaketa Klimatikoak ekarriko dituen arriskuak: itsas maila igotzea, uholdeak, lehortek,..(ERANSKINA 3)

### Esku-hartze konkretuen gainean

ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>Lehen sektorea bultzatu</b>	-Orain arte baserritarrak bigarren mailan egon dira eta Aurrerakinak ere ez ditu interbentzio konkretuak proposatzen hori aldatzeko. Adibidez Olaskoaga plazako merkatu postuak oso exkakak dira	
<b>Garapen ekonomikoa eta bizitegiarena</b>	-Lur natural asko ari da planteatzen etxebizitzarako eta garapen ekonomikorako	
<b>Altzateko garapena</b>	-Udalaren Klima Aldaketaren inguruko Planean etorkizuneko itsasoaren nibela agertzen da. Bertan Altzate, Erdialdea, Fanderia eta Gabierrota arriskuan agertzen dira	
<b>Frantzilla</b>	-Ez du ezer zehazten zer proposatzen den	
<b>Baso eremuak</b>	-Baso ikuspegitik bertako espezieei garrantzia eman. Horrek abantailak ditu ekosistemarentzat eta aztertu daiteke ea HAPO-tik babestu daitezkeen. Batez ere lur publikoak direnetan. Eta baita babesa duten eremuetan	

## DARE NATURALA, KULTURALA, ARKITEKTONIKOA ETA ARKEOLOGIKOA BABESTEAREN

### Printzipioen inguruan

Ez da ekarpenik egon

### Esku-hartze konkretuen gainean

Ez da ekarpenik egon





## AUZO DERIBAK

Aurrerakinaren parte hartze fase honek duen garrantzia kontuan izanda auzo guztietara joateko apustua egin da. Honetan asmatu dela esan dezakegu, bi faktore nagusi medio:

- Erreterian auzoek duten garrantzia sozio-urbanistikoa: “Auzoen hiri” bezala izendatu izan du auzotar batek baino gehiago. Hau da, Erreterea bakarra da, baina bere historia garaikidea medio, izaera/ezaugarri bereziak dituzten auzo anitzak ditu bere baitan. Errealitate sozio-urbanistiko ezberdinak. Honekin, auzo mailako elkartegintza aberatsa. Guzti honek ahalbidetu du:
  - Parte hartzea handitzea: Hiritar askok nahiago baitute ezagutzen zuten auzoaren inguruan ekarpenak egin hiri osoari zegozkionak baino (nahiz eta osotasuna ere eztabaidan presente egon den)
  - Parte hartzea hobetzea: Kualitatiboki potentzia handia eman dio prozesuari. Izan ere, auzo-elkarte askok urbanismoa lantzeko joera iraunkorra dute. Horrela deribetan, urtez eta lanketa komunitarioz egin diren hausnarketa eta proposamenak jaso ahal izan dira
- Aurrerakinak auzoei eman dien zentralitatea: Aurrerakinak berak ere auzo-errealitate hau kontuan izan du. Honen lekuko dira Auzo-Bihotzen planteamendua eta bestelako eremuetan (mugikortasuna, irisgarritasuna edo ekipamenduak kasu) nola auzoak zeharka agertzen diren. Honela, auzoetako deribetan auzoari begirako proposamen espezifikokoak lantzeko mamia egon da

Auzo txango hauetan jasoriko informazioa bi taulatan sistematizatu dugu. Lehenean Auzo Bihotzari zagokion informazioa, txango hauek baitziren proposamen zentral hau auzoan bertan kontrastatzeko abagunea. Bigarren taulan hiria alorrez alor joratu da eta elementu nagusiak bertan jaso dira.



AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Proposatzen den kokapenaren inguruan galdegin da. Egokia bada berdea, dudak badira laranja eta okerra bada gorria jarriko dugu		Egokitasuna
Hausnarketa/ekarpenak			
Auzo Bihotzaren proposamenaren inguruan eta honen inplikazioen inguruan jardun gara. Auzoaren ikuspegitik (ea onura egingo liokeen eta bideragarria den) eta hiriaren artikulazio ikuspegitik			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
Auzorako proposatzen den Bihotza-k, funtzio hori bete ahal izateko Espazio Publikoaren hobekuntza aldetik dituen behar, edo hobekuntza posibleak	Auzorako proposatzen den Bihotza-k, funtzio hori bete ahal izateko beharko lituzkeen zerbitzu publiko zein ekipamenduez aritu gara (berri, birgaitu beharrekoak, erabilerak, etab.)	Auzorako proposatzen den Bihotza-k, funtzio hori bete ahal izateko positibo liratekeen zerbitzu/komertzioz aritu gara	Auzorako proposatzen den Bihotza-k, funtzio hori bete ahal izateko irisgarritasuna bermatu behar du eta mugikortasun aldetik estrategia behar du (komunikazio nodo bat da Auzo Bihotza). Honen inguruko ekarpen, dudu etab. Jaso dira
Bestelakoak/			
Besterik balego hemen gehitu da. Ezer ez balego, arintzearen kendu egingo da azken zelda hau			

Bestetik, alorrez alor ere jardun da auzo-ikuspegitik. Honela jaso dira ekarpenak

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA (*)
Aurrerakinarekin bat, hiri esku hartze ildo estrategikoa zein den (mugikortasuna, Espazio Publikoa, etab.)	Kasu gehienetan Aurrerakinak proposatu dituen esku hartze edo alternatibaz aritu gara. Hemen hau zein den izendatzen da	Auzotarren ekarpenak bildu eta sintetizatu egin dira hemen Azpimarratu behar da hauek 2 modutan bildu direla auzo-txangoan zehar: <ul style="list-style-type: none"> <li>Fitxa bidez: Auzotarrek esku artena fitxa eduki dute zeinetan xehetasun denak islatzeko balio izan dien</li> <li>Eztabaidan ahoz esandakoak, dinamizatzaileok jaso ditugu</li> </ul>	Balorazio kuantitatiboaren batzbestekoa
		Aurrerakinak alternatiba ezberdinak proposatu dituen kasuetan ezberdinen artean bozkatzera (edo berriak proposatzera) gonbidatu da. Kasu hauetan "Alt. X" ipini eta aldeko bozkak jarri dira ondoko zutabearen	Alternatiba horren aldeko bozka

*Ezinbestekoa da iritziak modu batean "kuantifikatzea". Esku hartze bakoitza baloratu dute auzotarrek eskuan zuten fitxan bertan. 5 guztiz ez-ados izanik eta 1 oso ados.*

Azalpen hauek gogoan, goazen bada auzoz auzo.

## KAPUTXINOAK

Kaputxinoetako deriba Fuente Pelayo plazan abiatu genuen. Pertsona bakarra etorri zen Kaputxinoetako, Auzo Elkarteko kidea bera eta modu batean, Auzo Elkarteko iritzi nagusiak ekarri zituen iritzi pertsonala baino. Berarekin batera, Alaberga auzoko lau kide ere izan ziren. Hauek ere beren ebaluazioa egiteko aukera izan zuten.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Fuente Pelayo kokapen proposa da		
Hausnarketa/ekarpenak			
<p>-Auzo Bihotzen kontzeptua eta auzo zentro anitzen ideiak harrera oso ona izan du. Ikusten da, Kaputxinoetan badela auzo-bizitza eta hori mantendu behar dela. Urbanistikoki eta politika publikoen aldetik (ekimen kulturalak, mantenua, etab.) hori modu estrategiko eta iraunkorrean sustatzearekin adostasun handia</p> <p>-Kokapen egokia da, dena den arreta jartzen da Auzoaren goiko eta beheko aldearen artean sortzen den arrakalan. Behean taberna/komertzio gehiago dago eta horrek ere jendea behera eramaten du. Arazoak edo eztabaidak ere sortzen ditu auzo-ekimen eta jaiak antolatzeke garaian: Toki onena plaza da baina beheko ostalariak kexu dira, behean ezer egiten ez dela eta. Arrakala hori nolabait zaindu behar da</p>			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
<p>-Saski baloi espazioa estali behar da</p> <p>-Komun Publikoa behar da</p> <p>-Plazan, baxu batzuetan etxebizitza eginak daude: Tarteka kexu dira plazako baloien soinua etab. Auzokideek diote hori baxuan etxeak egitearen ondorio bat dela, plazako bizitza ezin dela gutxitu horregatik; agian etxebizitza horien leku-aldaketa sustatu beharko litzateke?</p>	<p>-Zamarreño parkea gertu izatea oso ondo dago, parkea bera eta Auzo Bihotzari ere arnasa ematen dio. Izan ere honetan berdeguneak eskasak dira. Lotura hau garrantzitsua beraz</p> <p>-Ekintza Kulturalak egiten dira, baina gehiago egin behar dira, aisiarako eskaintza gazte/nerabe etab. Ahal dela Auzo Bihotzean bai baina beheko aldearekin lotuz</p> <p>-Wifi publiko eta irekia plazan jarri beharko litzateke. Auzokide asko ekarriko lituzke plazara eta askok behar dute</p>	<p>-Plazan bertan denda bat badago, apur bat denetik duena, baita taberna bat ere. Ez da dena, baina uste da askoz gehiago ezin dela egon</p> <p>-Beheko aldean komertzio gehiago dago</p>	<p>-Gehitzeko ezer ez</p>

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>ESPAZIO PUBLIKOA</b>	Antoni Valverde estrategikoa		<b>2,2</b>
<b>MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA</b>	Sorgintxulo oinezkoentzako	-Ondo ikusi arren, dudak soluzio teknikoarekin: Posible izango da oinezkoen lehentasuna bermatu, bizikletei ganoraz lekua egin eta kotxeen pasabidea bermatzea? -Oinezkoentzako lekua irabazten bada; nondik eraman nahi da trafikoa? Batzuek soluzio teknikoa oso zaila dela diote	<b>1,7</b>
	Galtzaraborda oinezkoentzako ardatz eraginkorra bilakatu	-Ondo ikusi da hau hobetzea oinezko espazio sarearen ardatzetako bat bezala -Bidegorria: Egindako proposamenean era banandu batean askoz hobe, arazoak sortzen ditu formatu mistoak -Soluzio teknikoaren inguruan eztabaida asko: Posible da oinezko sare ona, bidegorria eta era berean kotxeen eratzunaren parte izatea?	<b>2</b>
	ETS-ren lurperatzea Fanderiaraino		<b>1,2</b>
<b>HIRI ALTERNATIBAK</b>	Esnabide: Bizitegi garapena	-Ahots batzuek etxebizitza tipologia mota ezberdinak txalotu dituzte, bereziki etxebizitza publikoa egitearen azpimarra -Era berean batzuk ez dute ondo ikusi hau garatu izana HAPO-a baino lehen -Alderdi berdea ordenatzea eskatzen da, lehen bazen baina utzia eta horregatik azpi-erabilia. Etxeak egitean honi garrantzia eman eta ganorazko berdegune bat egin	<b>2,2</b>
	Basanoaga	Alt1. Babeseko 20 etxebizitza egitearen alde	<b>I</b>
		Alt2. Ekipamenduak egitearen alde	<b>IIII</b>
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Ludoteka	Hezetasun arazoak ditu, larriak, eta hori konpontzeko eskatzen da. Garrantzitsua da auzoarentzako	<b>1</b>
	Gazte-nerabe	Salestarrek aisi eskaintza handia egin arren, gazte-nerabeentzako aisi eskaintza eta lekuak eskaini behar dira gehiago: Auzoan non egon eduki dezaten eta "denbora ondo erabili dezaten"	<b>1</b>

## ALABERGA

Alabergatik lau pertsona etorri ziren. Hiru auzo elkarteko kideak ziren eta Auzo Elkartean landuriko iritziak ekarri zituzten, modu batean bozeramailetza eginez. Laugarren pertsona, Aurrerakina irakurria eta eskuan zekarren gazte bat da. Esan den bezala, Alaberga-ko txangoa Kaputxinoetakoarekin batera egin genuen, dena den Kaputxinoetako auzotarra ezin izan zen Alabergara jaitsi. Beraz, iritzi eta balorazioak Alabergako lau auzokideenak izango dira.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Proposatzen den "Alaberga Plaza" ez da auzoaren zentro bezala ulertzen egun, plazaren egoeragatik eta erdigune soziala beste bat delako: Auzo Elkartea eta Jubilatu zentroaren inguruan dagoena egokiagoa izan daitekeela diote auzotarrek, Alaberga 9 eraikinaren aurreko plaza		
Hausnarketa/ekarpenak			
-Auzo Bihotzen kontzeptua eta auzo zentro anitzen ideia egoki Ikusten da			
-Hala ere, Alabergako auzo-bizitza dela eta beste plaza egokiagoak izan daitezke "Auzo- bihotz" izateko: bertan antolatzen dira jaiak, elkarte ezberdinak ondoan dituzte, auzoko komertzio bakarra ondoan dago,... egun proposatzen denaren inguruan ez dago bizitza sozialik			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
	-Komun Publikoa behar da  -Jende helduak aktibitate fisikoa egiteko beharrezko azpiegiturak auzoan txertatzea aberasgarri litzateke auzoarentzat	-Zaila ikusten da zerbitzu pribatuak auzoan sustatzea. Etxeen hasierako tipologiak bertako baxuak etxebizitza izatea ekarri du betidanik  -Bajo horietako batzuk udalarenak dira, agian horiek komertzio edo ostalaritzarako bideratu daitezke etorkizunean	-Alaberga 9 aurreko plazan bizikletentzako aparkaleku itxi eta estalia proposatzen da. Honela bizikleten lapurretak ekidin eta hauen erabilera sustatu nahi da auzoan  -Bidegorria Alaberga 9 aurreko plaza erditik pasatzen da Biteri kalerantza. Honek auzoko plazaren erabilera eragiten du
Bestelakoak/			
-Interbentzio berriak egin aurretik dagoena mantendu eta egokitzearen logika azpimarratu nahi da, bai orokorrean eta baita Auzo Bihotzari dagokionez ere			

EREMUA	ESKU-HARTZEAK (*)	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKORTASUN A ETA IRISGARRITASUNA</b>	Galtzarborda oinezkoentzako ardatz eraginkorra bilakatu	-Ondo ikusi da hau hobetzea oinezko espazio sarearen ardatzetako bat bezala -Bidegorria: Egindako proposamenean era banandu batean askoz hobe, arazoak sortzen ditu formatu mistoak -Soluzio teknikoaren inguruan eztabaida asko: Posible da oinezko sare ona, bidegorria eta era berean kotxeen eratzunaren parte izatea?	<b>2</b>
	ETS-ren lurperatzea Fanderiaraino		<b>1,2</b>
	Alaberga-Galtzarabordako pasarela		<b>1,7</b>
	Geltoki berriarekin lotzeko hodia	- "Alaberga goikoan" ere geltokia izan dezan eskatzen da (Alaberga 34-44 inguru hori lotzeko aukera eskatzen da)	<b>1,3</b>
	Alabergako biribilgunea handitzea	Honekin duda asko azaldu dira, batez ere esku-hartze osotasunean landu behar dela diotelako: Altzate-Iztitea eta aipatu biribilgunea. Honen inguruan: <ul style="list-style-type: none"> <li>Duda asko Alzateko hiri-garapenarekin: Uholdeak, lurrak kontaminatuak, espazio berde-padura bezala duen aukera, etab. Ez dira oso aldekoak eta horrek ere ekarriko duen mugikortasun presioaren beldur dira</li> <li>Altzate-Iztitea zubia: Ibilgailuentzako ez dadila izan eskatzen da</li> <li>Biribilgunea: Ez dute uste asko handitu daitekeenik beste espazioei kalterik eragin gabe: Parkeari azalera kenduko zaion beldur dira eta hori ez dute nahi</li> <li>Alabergan trafikoa handitu dezakeenaren beldurra</li> </ul> Dena den: Informazio gehiago behar dute askok iritzia eman ahal izateko Merkatuzarren egin zen azken saio irekian azpimarratu zen: Alabergako biribilguneak inpaktu handia ekar dezakeela eta hori hobeto aztertu behar dela	<b>4,2</b>
<b>HIRI ALTERNATIBAK</b>	Kiroldegiaren atzean 3 aukera	A: Parkea kontserbatu	<b>IIII</b>
		B: Kiroldegia handitu	<b>I</b>
		C: 40 etxebizitza (16 babesekoak eta 24 libreak)	
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Igogailua	Alaberga auzoa kaletik (Alaberga 33 zonalde hori), Aiako Harria kalera lotura egiteko: Horma margotua dagoen tokian	


## GALTZARABORDA/IGANTZI

Galtzarabordako deriba Urdaburu plazan abiatu genuen. Bost Pertsona etorri ziren Galtzarabordatik eta bat Igantzitik, Auzo Elkartekoak zein parrokiako elkartekoak. Hauek ekarpenak:

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Urdaburu Plaza kokapen aproposa da		
Hausnarketa/ekarpenak			
<p>-Auzo Bihotzen kontzeptua eta auzo zentro anitzen ideiak harrera ona izan du</p> <p>-Kokapen egokia da, jendea eta haurrak bertan ibiltzen direlako. Dena den arreta jartzen da Plazak dituen beharren inguruan: Estalki baten falta dago haurrak bertan jolasteko, inguruan ez dago komertziorik, taberna bakarra dago, etab.</p> <p>-Positiboki baloratzen da plazaren ondoan igogailua dagoela eta irisgarritasun ona duela</p> <p>-Auzoak hiru zentro nagusi ditu: Urdaburu plaza (Parkea), Parke kalea eta Igantzi azpi-auzoa</p> <p>-Igantzi eremuan Ganbo Plazari garrantzia berezitua ematea ongi ikusten da. Plaza honi, batez ere, aurrez-aurre esertzeko bankuak eta itzalguneak falta zaizkio</p>			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/Irisgarritasun
<p>-Plazako gradak egurrez egokitu eta hobetzeak kalitatea emango lioke</p> <p>-Estalki bat beharrezkoa da. Espazio oso zabala da eta interbentzio horrek asko hobetuko luke auzo bihotza</p>	<p>-Ondoan dagoen Pio Baroja eskolak dituen espazioak libre daude eta auzo ekipamendu bezala erabiltzea interesgarria litzateke</p> <p>-Jubilatuena taberna itxita dago, irekitzeak bizitza emango lioke plazari</p> <p>-Haur eskola, auzoko ekintzak egiteko erabiltzen da. Honek aberastu egiten du auzo bizitza</p> <p>-Bi lokal daude Parke kalean itxita, irekitzeak bizitza emango lioke kaleari</p>	<p>-Udalaren kompetentzia izan ez arren kutxazain automatikoa kendu diete auzotik</p> <p>-Galtzaraborda hiribidetik plaza arteko tartean ez dago komertziorik, horrek auzo bihotza asko mugatzen du</p> <p>-Igantzian auzo elkartearen lokala eta taberna elkarren ondoan daude, hor mugitzen da jendea. Zerbitzu sozialen lokala ere eskatu zuten</p>	<p>-Zentrotik kiroldegirako maldak zailtasunak planteatzen dituzte gurpildun aulkiekin iristeko, penditzagatik</p> <p>-Urdaburu kalea eta Aitzgorri plaza elkartzen diren puntuan irisgarritasun arazoa maldagatik</p> <p>-Pontika eta Igantzi lotuko dituen igogailuaren kokapena: hobe da frontoiaren paretik jartzea, Pontikan apur bat gehiago ibili behar da baina Igantziko irteera hobeki kokatuta legoke</p>
Bestelakoak			
-Auzoaren goiko aldean udalaren zerbitzu/bulego bat jartzea (astean egun bat edo bi) ezinbestekoa da			

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA	
<b>MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA</b>	ETS-ren lurperatzea Fanderiaraino	-Oso interesgarria ikusten da auzoa eta erdigunea elkartzeko -Aparkaleku gehiago egiteko aprobetxatu interbentzioa	<b>1,2</b>	
	Geltoki berriarekin lotzeko hodia	-Auzoen arteko konexioa egoki ikusten da baina zalantzak "itxia" izango den hodia baldin bada. Seguruagoak dira irekita dauden eskailera edo maldak -Goiko auzoak behealdearekin konektatzen eta irisgarriago egiten dituzten interbentzio guztiak ongi etorriak dira	<b>1,6</b>	
	Galtzarborda oinezkoentzako ardatz eraginkorra bilakatu	-Bizikleten bideak goiko aldea zentroarekin lotu dezan oso kontuan hartu	<b>1</b>	
	Igantzi-Pontika igogailua	-Kokapenari dagokionez zentrotik irisgarritasuna zuzenagoa da	<b>1</b>	
<b>ESPAZIO PUBLIKOA</b>	Ganbo Plaza estrategikoa	-Plaza abegikorrago eta erosoago bilakatzea interesgarria ikusten dute -Plazako bankuen, jardinen eta auzo elkartearen eraikinaren mantenua ezinbestekoa dira plazaren bizitza bermatzeko -Zaintza berezia behar du Plazak, auzoa oso aparte eta ekipamentu gabe geratzen ari baita	<b>1</b>	
<b>HIRI ALTERNATIBAK</b>	Kiroldegiaren atzean 3 aukera	A: Parkea kontserbatu	<b>I</b>	
		B: Kiroldegia handitu	-Kirol gunea aire librean egitea, herritar guztiok dohain erabiltzeko -Kiroldegirako aparkalekuak jartzea	<b>IIII</b>
		C: 40 etxebizitza (16 babesekoak eta 24 libreak)		






## AGUSTINAK

Agustinetako txangoa Gaztainokoarekin batera egin genuen. Honela Elias Salaberria plazatik abiatu ginen. Kaputxinoetatik hasiera batean lau kide etorri ziren, txango osoa bik egin zuten arren. Esan zuten, Aurrerakina Auzo Elkartearen landua zuten, auzokide batzuekin bilera bidez ere kontrastatua. Hortaz iritzi pertsonala baino, auzo elkartearen iritzi landua ekarri zuten. Honekin, mugikortasunari loturiko proposamen bat eman ziguten eskura (*ERANSKINA 4*)

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Hasiera batean Elias Salaberria plaza ondo		
Hausnarketa/ekarpenak			
-Auzo Bihotzen ideia eta kontzeptuarekin ados, auzo-plazak, zentro anitzeko errenteria etab. Ondo ikusia da -Kontuan izan behar da ez dutela "Elias Salaberria" deitzen eta hor (auzoko puntu ezberdinekin bezala) agian identifikazio/erreferentzia handitzeari begira, agian ber-izendatze bat egin behar dela			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
-Plazan estalpe on bat behar da	-Umeentzako jolasgunea badago (7 urterako pentsatua). Agian adin tarte handiagoa hartzeko egokitu	-Gertuko komertzioaren aukera eskasa da auzoan	-Bizikleta aparkalekuak faltako lirateke





EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>ESPAZIO PUBLIKOA</b>	Oinezkoentzako bide-sarea	-Oinezko espazio bezala Agustina goiko plaza erdia ondo (Markola 3 autobus geltokiaren ingurua) espazio publiko gako bezala ez	<b>1</b>
<b>JOLAS-KIROL EREMUA</b>	Markola/ Zapirain artekoa eta Markola/Salaberr ia artekoa	-Ez dute izenik eta erreferentzia indartzeko izendatzea ondo legoke	<b>1</b>
<b>MUGIKORTASUN A</b>	Lousadas oinezko ardatz	-Zuhaitzak falta dira -Iturriak falta dira	<b>1</b>
	Bidegorri gehiago ez	-Ados daude, daudenak ondo erabili behar direla gehitzen dute	<b>1</b>
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE SISTEMA</b>	Arramendi	-Azpimarratzen da: Badago parte hartze prozesu baten emaitza den proposamena. Hori integratu eta kitto	<b>1</b>
	Txillida	-Ondo, "kurben parkea" deitzen zaio. Agian identifikazio eta garrantzia emateko ekimen-politika behar da	<b>1</b>
<b>EKIPAMENTUAK</b>	Agustinetako komentua	-Ekipamendu kulturalarekin ados, etxebizitzekin ez: Aparkalekuak egitea hobesten da	<b>2</b>
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Puntu arriskutsuak aipatu dira	-Markola eta Lousadas-en: Zaborrontzien parean dauden zebra-bideak -Irteerak: Oñatibia eta atari eder	<b>1</b>
	Trafiko moteldu	-Agustinak kalea, Lousadas eta Migel Alduntzin	<b>1</b>
	Tapatu	-Eskolako patioa	<b>1</b>
	Aparkalekuak	-Idatzizko proposamen bat ekarri da. Laburbilduz; <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aparkaleku arazo larria dago; larritzen dena: Zenbait ordutegitan, zenbait gertakariekin (adib. Jehovah-ren lekuko biltzarrak), etab. Kotxeek gaizki aparkatzen dute</li> <li>• Aparkalekuak kentzea aurre-ikusten da (Markola-ko ludoteka kasu)</li> <li>• Aparkalekuak eskaintzea eskatzen da: Agustinetako komentuan izan daiteke</li> </ul>	<b>1</b>

## GAZTAÑO

Gaztañoako txangoa Kaputxinoetan hasi genuen. Beheko auzotik lau pertsona etorri ziren, Auzo Elkartekoak edo auzo mugimendukoak denak. Hauek ere, iritzi pertsonalak baino, auzo ordezkari bezala etorri ziren.

Lauek aho batez egin zuten azpimarragatik, hona ekartzen dugu postura orokorra Aurrerakinarekiko: Printzipio, filosofia eta auzorako esku-hartze askorekin ados baina oposizio frontal bat esku hartze batekiko: Gaztañoako Zubibidea. Auzoaren kontra ez ezik, Aurrerakinaren printzipio askoren kontra doala argudiatuko da.

AUZO BIHOTZA		
<b>Kokapena</b>	Gaztaño plaza ondo	
Hausnarketa/ekarpenak		
-Ondo ikusten da Auzo guneen indartze hori		
-Gaztañoarrek diote badutela beren auzo-plazan beharrezko dutena. Egoitza, parkea, espazioa, loturak... ondo. Eta zerbait gaizki bada auzokideen artean koordinatzen dutela. Adibide bat: Futbito zelaiak arazoak ematen zituen plazan eta kendu egin da. Alde horretatik ez da arazo aipagarriarik ikusten		

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>HIRI ALTERNATIBAK</b>	Lurperatzea eta berrantolamendua	Lurperatzearen ideiarekin guztiz bat. Baita hiribide eta plazaren ideiarekin ere	<b>1</b>
		Zubibidearekiko kontrakotasuna irmoa da. Arrazoiak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Suposatuko duen kaltea hobekuntza nabariak izan dituen auzo honetan: Soinua, trafikoa, kutsadura,... besteak beste</li> <li>• Zubibideak inguruan sortuko duen espazio publiko eskasa eta arazoak: Puntu Beltza adibidez</li> <li>• Ez da behar: Auzokideek eta errenteriarrek ohitura hartua dute buelta egiteko: Agustinetatik, Egiluze eta industri gunetik Pontikara edo Gaztaño atzeko aldera</li> <li>• Egin nahiko balitz zerbait: Aprobetxatu dadila eraikia dagoen azpiegitura: Saihesbidetik irteera-sarrera doakoak. Ez errepede gehiago</li> <li>• Aurrerakinak trafikoa hiri erditik kentzea esaten du, oinezkoa lehenetsi, hiria lotu... eta ondo ikusten dugu. Horregatik: Zubibidea ez dugu onartzen</li> <li>• Altxu kaleko ingurua ere kaltetuko luke asko: Gaztetxea eta honen ingurua eta inguruan bizi direnak noski</li> </ul>	<b>5</b>

		<ul style="list-style-type: none"> <li>Auzotarren arten honen inguruan kontsentsua dago: Ez da nahi, ez da behar. Gainera belaunaldi ezberdinek mantendu duten posizioa dela eta kontrakotasuna handia dela azpimarratzen dute</li> </ul>	
		<p>-Kotxerak: Hemen etxebizitzak egitea ez dute oso ondo ikusten eta gutxiago aparkalekuak (auzoa kotxez betetzearen ideiarekin kontra dira, bai aparkaleku eta baita aipatu zubibidea)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>“Mantxester txikiaren” izenean mantendu beharko litzake egitura (konponduz noski) eta kultur ekoizpen/eszena bat sortu bertan. “Astra eredia” aipatzen da (Gernika)</li> </ul>	4
MUGIKORTASUN A	Gaztañoko igogailua	-Ados planteatzen denarekin. Dena den azpimarratzen da: Badago jada proposamen adostu bat eta trazado adostu bat (Madalen kalearen atzealdetik eta bi pasarela: Gaztetxe ingurua bat eta Zabaleta Anaïen kale inguru horretara bestea	1,5
	Igogailua J.Migel Barandiaran eta Arramendi	-Adostua den arren, kide batek ez du uste “mendi ingurura joateko igogailurik jarri behar denik”	2
	Pasabidea Arramendi-Palazio zaharra	-Apu bat harritu ditu proposamenak. Ez dute uste beraiek erabiliko luketenik. Gainera uste dute arriskutsua ere izan daitekeela zubi hori. Egitekotan oso ondo tapatua behar du babestua, inork jauzi ezin egiteko	<b>Ez da baloratu</b>
ESPAZIO BERDE/LIBRE SISTEMA	Arramendi	-Azpimarratzen da: Badago parte hartze prozesu baten emaitza den proposamena. Hori integratu eta kitto	1
GEHIKUNTZAK	Arramendi parkea	<p>-Aurreko planean “Urbanizagarri” jarria dagoen eremu hori behin betiko urbanizaezin izateko beharra azpimarratzen da. Auzokideekin egin zen planean jasoa dago</p> <p>-Auzotik sortu den lotura “natural” bat egokitzeko eskatzen da: Altxu kalea 16tik, berdegunetik ateratzen dena. Inpaktu txikiko ibilbide egokitzapena</p> <p>-Azpimarra egiten da: Badago plan adostu bat honekiko, hori egin dadila</p>	

## ERDIALDEA

Erdialdeko txangoa Foruen Plazan hasi genuen. Bertatik sei auzotar etorri ziren. Elkarre ezberdinen bueltan aritutakoak izan arren haien iritzia modu pertsonalean egiten zituztela azpimarratzen da.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Foruen Plaza, Auzo Bihotz bezala printzipioz ongi ikusten da		
Hausnarketa/ekarpenak			
-Erdialdean plaza ugari daude (Alameda, Niessen, Olaskoaga) bizitza dutenak eta zerbitzu publiko zein pribatu desberdinak eskaintzen dituztenak			
-Foruen plaza egokia izanda ere, logikoa ikusten da bihotz anitzeko gunea izatea. Are gehiago kontutan hartzen bada, plaza horiek ongi komunikatuak daudela eta jada bizitza handia duela			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
-Komun publikoak jarri behar dira zenbait plazetan	-Gehitzeko ezer ez	-Gehitzeko ezer ez	-Gehitzeko ezer ez

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>ESPAZIO PUBLIKOA</b>	Espazio Publiko estrategikoak indartu	-Antontxu Sainz Plazari ere kategoria berezitua ematea proposatzen da	<b>2</b>
<b>MUGIKORTASUN A eta IRISGARRITASUNA</b>	4 ardatzen sarea	-Papresaren eremuko ardatza aseguru eta kontsolidatu behar da	<b>1,25</b>
	ETS-ren lurperatzea Fanderiaraino		<b>1,2</b>
	Eraztun bikoitza: Tomas Lopez artikulazio ardatz	-Tomas Lopez eta R.M. de Azkue kaleak lotzen dituen bide-proiektuarekin ( <i>ERANSKINA 2</i> ) zer gertatzen da? Ordainduta dago %100 entitate pribatu bati -Aurretik Tomas Lopez kalearentzat egindako proiektuak aztertzea komeni da	<b>1,6</b>
	Trafikoa Biteri Kaletik Bittor Idiazabalera	-zalantzak sortzen dira nola uztartu sarrera eta irteerak eta nola regulatuko zen trafikoa -Ongi ikusi arren aztertu behar da nola bermatu bi norabideak: Aparkalekuak kentzea, Telleri eskola kontutan hartzea eskatzen da	<b>2</b>

## IZTIETA

Iztietako txangoa Erdialdetik (Foruen Plazan) hasi genuen. Bertatik bi auzotar etorri ziren. Bata modu pertsonalean zetorren, bestea aldiz auzo elkartetik.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Diputazio Plaza, ongi ikusten da, auzoan dagoen bakarra delako		
-Hausnarketa/ekarpenak			
-Auzo Bihotzaren ideia ona da baina benetan garatzen bada. Aurretik ere egon dira auzoak indartzeko asmoak baina ez dira garatu udalaren aldetik			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irigarritasun
-Egun kulturalak ez dira auzora eramaten (jaiak, ekintzak, musika,...) -Udalak ekarpen gutxi egiten du auzoko bizitzan -Batez ere mantenua da gabezia nagusia: zaborra, garbiketa, argiteria,...		-Komertzio minimoa badago eta orain gehiago irekitzen ari dira -Badago bizitza egiteko moduan baina gehiago sustatu daiteke	-Garraio publikoarekin oso ongi dago komunikatuta: 4 autobus linea, trena eta topoa 7 minuturo
<b>Bestelakoak/</b>			
-Auzo egokia da bizitzeko baina udalaren partetik utzikeria dago			


EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKORTASUN A ETA IRISGARRITASUNA</b>	Alabergako biribilgunea handitzea	-Zehaztasuna falta da iritzia eman ahal izateko -Zalantzak ondoko Plazatxoarekin: Espazioa kentzen bazaio kontrako iritzia	<b>3,2</b>
	Altzate-Iztietia zubia	-Zubia oinezkoentzat izan dadila -Askok ez dut beharrezko ikusten. Iztietarentzat kalterako dela uste da -Kezka proiektuarekin. Jakina da proiektu bat definituta dagoela eremu horretarako. Aurrerakinak hori zergatik ez du jasotzen galdetzen dute auzotarrek	<b>3,5</b>
	"By pass" Askatasunaren Martirietatik		<b>3,2</b>

## OLIBET-ETXEBERRI

Olibet-Etxeberri hiriaren iparraldean dagoen auzoa da. Hiri txangoa Erdialdea eta Iztietarekin batera proposatu da. Auzoko kide bat azaldu da eta beste auzoetakoek ere ekarpenak egin dituzte.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Gernika plaza proposatzen da, egokia da		
Hausnarketa/ekarpenak			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irsgarritasun
		-Komertzioek itxi dute. Zentroa oso hurbil dago eta ez da bideragarria izaten bertan komertzioa mantentzea	-Aparkalekuak behar dira. ADIF-eko lur saila horretara bideratu zitekeen eta saiakerak izan omen dira  -Errepide generalak (+ADIF + Papelerak) zarata sortzen dute eta horren inguruko kezka badago auzoan

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKORTASUN A ETA IRISGARRITASU NA</b>	“By pass” Askatasunaren Martirietatik		<b>3,2</b>
	Aparkalekuak: Askatasunaren Martiriak eta Linokoa handitzea	-Gamon Zumardia berritzea behar da	<b>1,4</b>



## GABIERROTA

Gabierrotako auzokideekin txangoa Evaristo Bozas Plazan hasi genuen. Bertan hiru kide bildu ginon: Gabierrotako auzo elkarteko kide bat eta Fanderiako bi.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Evaristo Bozas ez da lekurik onena bezala ikusten. Auzoaren topaleku Azpitarte kalea da gehiago		
Hausnarketa/ekarpenak			
-Auzo Bihotzen kontzeptua eta proposamena ondo ikusten da			
-Esan bezala, Evaristo Bozas plaza jolasgunea da gehiago (saski baloi kantxa du) auzo topaleku bat baino gehiago. Logikoagoa da Azpitarte edota Gabierrota kaleen inguruan pentsatzea bihotza			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
-Parkea berri behar da, makal dago  -Komun publikoak beharko lirarteke  -Erabakitzen den eremua, egokitu auzo-topagune izateko, modu integrarean		-Auzoa kutzazain automatikoa behar da	-Azpitarte pasalekua peatonalizatua dago, arteria ona da auzoan

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKLORTASUNA</b>	<b>Oinezko espazioen sarea</b>	-Idea ondo ikusten da. Baina auzoan: <ul style="list-style-type: none"> <li>Zahar egoitzaren inguru hori oinezkoentzako bilakatzea lehentasunez eta aparkalekuak kentzea ez da ikusten. Arazo gehiago soluzio baino</li> </ul> -Auzo Bihotzaren kokalekua ber-pentsatu eta oinezkoen sarea ere ber-pentsatu behar da. Aipatu gune hori Evaristo Bozas/zahar etxearen artean ez da egoki ikusten -Gehitzeko espazio txiki bat oinezko sareari: Kotxeak kendu "Zubia tabernaren" inguruan eta plazatxo bat sortu Gabierrota hiribidearekin bat	5
	<b>Bidegorriak</b>	-Oartzun ibaiaren bestaldetik, bakearen parketik doan bidegorria nahikoa da zentroarekin lotzeko. Auzo barruan asko ez sartzea nahiago da, 3. adineko jendearentzako ere arriskua dela iritzita  -Ez da ikusten zahar egoitzaren atzeko tramo berria	5



	<b>Eraztun bikoitza-Motordun ibilgailuak</b>	<p>-Nafar hiribidea arteria izatea ba beno, bada jada ba ondo</p> <p>-Aparkaleku berririk ez proposatzea ba beno. Baina behintzat ez kendu kotxeentzako lekurik. Planteatzen dena Tomas Lopez-en ez da auzotarrei zerbitzu emango dien aparkalekua</p> <p>-Duda asko sortzen ditu Tomas Lopez kalean egin daitekeena bi eraztun horiek lotzeari begira</p>	<b>3</b>
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE SISTEMA</b>	<b>Bakearen parkea</b>	Gabierrotari dagokionean ondo dagoen bezala uztearekin (mantenu kontuak ahaztu gabe noski), ekarpenik ez	<b>1</b>
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE</b>	<b>Txillida, Bakearen parkea eta Oiartzun Ibaia</b>	-Oso ondo ikusten da	<b>1</b>
<b>GEHIKUNTZAK</b>	<b>Jolas eremua (farmaziatik gertuen dagoena)</b>	-Estalpe bat jarri beharko litzaioke. Ume, gazte eta nagusien erabilera asko handituko luke eta gune interesgarria litzake auzoarentzat. Lehentasunez auzotik gertu dagoena eta ahalko balitz baita bigarrena ere	<b>1</b>
	<b>Pasarelak</b>	-Nahiko dagoenarekin baina: Konpondu, mantenua. Irristakorrak dira	<b>1</b>





## FANDERIA

Fanderia auzotik bi kide etorri ziren. Auzo elkartetik etorri ziren eta auzorako proposamenak auzo elkartean landuta zituzten. Hortaz, esandakoak ekarpen kolektiboak izan dira. Kideek azpimarratu dute, 40 puntutik gorako proposamen bat landua dutela, udalari helarazi diotela eta hori kontuan hartzeko eskakizuna egin dute.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Dolores Ibarruri ondo deritzote. Dena den beraiek "Errotaren Plaza" deitzen dute eremua		
Hausnarketa/ekarpenak			
Ondo ikusten da Auzoen hiriaren proposamena eta Fanderian ere baduela zentzua			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasun
<ul style="list-style-type: none"> <li>-Aterpe bat behar da, handi samarra</li> <li>-Eszenatoki bat, iraunkorra Atisbai kalean</li> <li>-Oinezkoa Atisbai izatea ondo baina terrazei kalte egin gabe</li> <li>-Komuna Atisbain</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-3. adinekoentzako zentroa sortu: Dagoen lokal bat, udalak erosi eta laga dezala (errota tabernaren parean, beste aldean)</li> <li>-Agian auzo elkartea bertara ere ekarri, urruti baitago</li> <li>-Gazte leku bat ere irekitzea oso ondo legoke</li> <li>-Ekimen kultura gehiago eraman behar dira Auzo Bihotzera</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>-Aparkalekuak bizikletentzako</li> <li>-Bide-gorri lotura Fanderiatik egitea</li> </ul>

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKORTASUN A</b>	ETS ardatzarekin bat oinezko sarea		<b>1</b>
	Atisbai lotura oinezko lehentasuna	-Ondo baina terrazen eremuari kalte egin gabe -Jaietan erabili ahal izatea eta eszenatokia jartzea oztopatzen ez duen bitartean	<b>1</b>
	Bidegorri gehiago ez	-Sarea nahiko ondo dago -Aurrerakinak jasotzen ez duen tramo bat onartua dela diote: Erramun Atisbai hegoaldera trenbide azpitik (Markola-Fanderia lotuko lituzkeena) -Dena den oinezkoek ez dute errespetatzen Oiartzun ibaiaren ertzetik doana: Oinez doa Jendea, nahiz eta seinalizatua dagoen -Agian korrika egitera doazenezako ere izan liteke bidegorria? Hori hala bada agian seinalea jarri beharko litzake	<b>5</b>
	Igogailu berririk ez	-Ados	<b>1</b>
	ETS lurperatu	-Ondo ikusten da oro har. Baina beno auzoari nola eragin diezaiokeen ez da argi -Zaila dela jakin arren, lurperatzea gehiago luzatuko balitz Oiartzunerantz espazio ederra libratuko luke auzoarentzat ere ekarpen handia izanez -Nahi dutena da pantailak jartzea, soinua kentzeko	<b>1</b>
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE</b>	Txillida, Bakeraren parkea eta Oiartzun Ibaia	-Aire libreko kirol jarduerak egiteko aukera aztertzeko eskatzen da. Auzoan bereziki nahi da: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Skate park</li> <li>• Petanka</li> </ul> -Komun publiko bat jartzea behar da: Atisbai-Dario Regoyos eskinan (oinezko bide horretan)	<b>3</b>
<b>GEHIKUNTZAK (azpimarratuak)</b>	Bidegorria	-Aurrerakinak jasotzen ez duen tramo bat onartua dela diote: Erramun Atisbai hegoaldera trenbide azpitik (Markola-Fanderia lotuko lituzkeena)	<b>1</b>
	Mugikortasun plana	-Inguruan trafikoa moteltzeko eta eremua seguruago egiteko proposamen oso bat dutela baieztatzen dute, udalarekin adostua. Hori kontuan izan eta egiteko azpimarratzen dute	<b>1</b>
	Komuna	-Atisbai eta Regoyos eskinan zona berdean/oinezko bidean	<b>1</b>

	Skate Park	Bakearen parkean jartzeko aukera ebaluatu	1
	Parkea estali	Dario de Regoyos atzean dagoena	1
	Nerabeak	Auzoan geratzeko, beharrezkoa da aterpe bat eskaintzea. Bestela beste toki batzuetara doaz	1
	3. adinerako eguneko zentroa	-Auzo Bihotza indartzeko ideia: Errota museo parean dagoen lokalean (pribatua), udalak erosi eta eguneko zentroa (3.adina) jarri	1
	Errota Plaza	-Auzo Bihotzean eszenatoki iraunkor bat eraiki, erabiltzen ez denean ere jendea estalita egon ahal izateko. Atisbai kalean, Auzo Bihotzaren zentroan	1
	Futbito zelaia estali	-Bakearen parkean	1
	Ibaiean estankamendua	-Ura pilatu eta euliak agertzen dira, hori konpontzen saiatu behar da	1
	Tendido elektrikoa lurperatu	-Auzotik pasatzen den zatia lurperatu	1
	Auzo dossier-a	-Azpimarratu badutela 46 proposamenekin dossiera landua (2016)	1

## LARTZABAL

Lartzabal hiriaren ekialdeko ertzean dagoen auzo txikia da. Hiri txangoa Gabierrota eta Fanderiarekin batera proposatu da. Ez da auzoko kiderik agertu eta beraz ezin izan da informaziorik jaso.



## ZAMALBIDE

Zamalbide auzotik hiru kide etorri ziren. Auzo elkartetik bi eta lehen sektoreko langile bat. Gaia landu gabe zekarten, beraz, esandakoak iritzi pertsonalak izan dira.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	-Errenteriako auzoa da Zamalbide, baina aurrerakinak ez du Auzo Bihotzik proposatzen auzoarentzat. Auzotarrek kezka adierazi dute honekin		
Hausnarketa/ekarpenak			
-Auzo Bihotzen kontzeptua eta auzo zentro anitzen ideiak harrera ona izan du. Auzo Bihotz bat izendatu eta lantzea estrategikoa izan daiteke auzoarentzat			
-Oso sakabanatua dagoen auzoa da eta elkargune bat izateak berebiziko garrantzia dauka. Lehen elizaren bueltan sortzen zen elkargunea baina orain ez du funtzioa betetzen			
-Errenteria eta Astigarraga parteak ditu auzoak eta auzokideek bi udaletara jotzen dute. Hainbat zerbitzu konpartitzen dituzte (autobusa,...) Auzo Bihotza ere logika horretan pentsatu daiteke.			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irigarritasun
	-Badute auzoan musika eskola eta Oiarxoko ikastola bezalako ekipamenduak  -Auzo elkarteak ez du lokalik funtzionamendu eta elkargunerako	-Jatetxeak soilik dituzte auzoan	

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK		ADOSTASUN MAILA
<b>ETXEBIZITZA</b>	Zamalbide berri etxebizitza garapena	A: Garapen erresidentziala eta saihebidia		<b>1</b>
		B: Dagoen moduan kontserbatzea	-saihebidia bakarrik egitea, istripuak ekiditeko	
<b>GARAPEN EKONOMIKOA</b>	Tolarieta			<b>2,3</b>
	Morrontxo	-Guztiz kontra, ingurune oso garrantzitsua delako		<b>5</b>
	Intzinarate			<b>4,3</b>
	Palaziozarra-Larretxipi	A:erabilera ekonomikoa		
B: mistoa, etxebizitza eta ekonomikoa		-Zerbait egitekotan inbestigaziorako gune bezala		
C: etxebizitzak				
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Saihebidetako biribilgunea	Errepidea eta gurutzebidea oso txarrak dira, biribilgunea proposatu izan da aspalditik maiz gertatzen diren istripuak ekiditeko		<b>1</b>

## BERAUN

Auzo elkarteko lau pertsona etorri ziren. Gehienek Jubilatuen elkartean kokatu zuten beren burua. Auzo ekintzaileak eta auzoaren memoria bizi. Era berean auzoaren aldarri kolektibo asko landuak ekarri zituzten, ekarpen kualitatibo handia eginez. Hauekin batera, Pontika auzoko 2 pertsona etorri ziren.

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	Pablo Sorozabal kokapen egoki bezala ikusten da		
Hausnarketa/ekarpenak			
Beraun-ek auzo bizitza handia duela diote. "Herri txiki" bat bezala da beren esanetan eta horrela hirigintza ikuspegitik hori balioan jarri eta indartzea ondo ikusi da. Uste da norabide horretan gauzak egiten ari direla honezkero baina ondo dela hori berretsi eta indartzea			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irisgarritasuna
<p>-Arazoak sortzen ditu saski-baloi eremuak, plaza erdian: 3. adineko pertsona eta gaztetxoaren artean. Hori "sarriegiko garapenera" eramatea egoki dela diote, kirol jarduera plazan ez egitea Umeak Sarriegira lasai joateko konexioa ona behar du</p> <p>-Plazaren ertza (aita donostiaren aldean) hobetu behar da, gaizki aprobetxatua dago: Belardia-aulkiak-zuhaitzak integratu, ahal bada kota aldaketatik eszenatoki iraunkor bat eraiki. Honek estalpea edukiko luke eta egoteko tokia ere izan liteke</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Honi lotua; agian "kiosko" formatuan?</li> </ul> <p>-Beroa eta itzal falta: Zuhaitzak edota itzala emango duten aterpeak falta dira. Beherago badago parkea eta ondo dago, baina plazan bertan behar da, bero handiko egunetan bestela ezin da egon</p> <p>-Orokorrean ondo dago baina mantenua indartu behar da, bestela narriatzen da azkar</p>	<p>-Zaborrontzi gehiago eta hobe kokatuak (sarreretan etab.)</p> <p>-Gorago (San Markos kaleko haurtzaindegi oihan) udal zerbitzu/arreta gune bat egin behar dute auzoan, gertu hemendik. Hori oso ondo</p> <p>-Plazako lokal handi batean ludoteka dago. Proposamen bezala: Lekuz alda daiteke eta hor 3. adinarentzako eguneko zentro bat jarri? Eremu horretan bada beharra</p>	<p>-Ondo, orokorrean bada denetarik</p>	<p>-Ez da arazo berezirik identifikatzen</p>

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>ESPAZIO PUBLIKOA</b>	Luis Mariano plaza estrategikoa	-Adostasun handia honetan, duen kokapenagatik eta gaur egun jada baduelako bizi-tza ere. Bada elkar-gunea eta Beraun ibilbidearen erdian (igogailuen ondoan egoteak ba laguntzen du). Aparkalekuak behean ere <ul style="list-style-type: none"> <li>Dena den, aipatu da behar da baduela esku-hartzea: Estetikoki, dagoena hobetu, itzala, etab.</li> </ul>	<b>2</b>
<b>MUGIKORTASUN A</b>	Galtzaraborda eta Beraun oinezkoen lehentasuna indartzea	-BI ikuspegi nagusi azalera dira: <ul style="list-style-type: none"> <li>Ausartak izan behar gara eta bai, ahal dela sakonki egin, kotxe aparkalekuak kendu eta oinezko/txirrinda bide bezala landu. Ahal dela oinezko-txirrinda formatu ez mistoak</li> <li>Beste batzuk, alde bai baina beldurra erakutsi dute: Aparkaleku arazoa dago eta bizi-lagunen artean harrabotsa sortuko du. Azken hauek dena den, aparkalekuen eraikuntzarekin hori konpentsatzeko ideiarekin bat egin dute</li> </ul> <p>Erloju-Termometro bat jartzea eskatzen da: San Markos Parkean/Galtzaraborda kalean</p>	<b>2,4</b>
	San Markos: Oinezkoen lehentasuna indartzea		<b>3,2</b>
	Maurice Ravel: Oinezkoen lehentasuna indartzea	-Gaurko egoera ikusita, oso zaila ikusten dute. Ez ideia txarra delako edo ados ez daudelako, uste dutelako honek ere gatazka handia sortuko duela	<b>2,6</b>
	Bide-gorri berri sare berria	-Ahal dela (eta kontuan izanda lekuak determinatuko duela aukera), eta batzuk ez direla aparkalekuak kentzearen aldekoak, segregatua: Ez dute gustuko oinezko/txirrinda bide mistoa -Beldurra kotxeei asko kenduko ote dien. Gainera ez dira txirrindan mugitzen etorri direnak eta ez dakite baloratzen argi	<b>2</b>
	Hodia	-Oso ideia on bezala ikusi da, noski auzora begira jarrita: Ea hodi hori Beraunera ekarri ezin den galdetu dute	<b>2</b>
	San Markos: Aparkalekua	-Gutziz ados, Pontikako eredia ere gustuko izan dute. Uste dute aukera balego lurpean ere egin beharko zela, baina prest daude inpaktu paisajistikoa asumitzeko baldin eta aparkaleku asko sortzea posible izango bada -Ekipamenduari dagokionez: Egun "Centro Extremeño" dagoela azpimarratu dute eta galdegin ea horientzako alternatibarik baden. Era berean, azpimarratu dute ondoan egingo den "udaletxe txikiarekin" lotura ere eduki lezakeela ekipamendu horrek	<b>1,6</b>


		-Ekipamenduari dagokionez, bi lehentasun ikusten dira: Haurrentzako eta adinduentzako egoteko espazioa	
	Beraun/Pontika aparkalekuak	-Jada definitua dagoela (lau alturatakoa eta banaketa) esan da. Pozik agertu dira Pontikakoak eta Beraungoek ere eredu on bezala ikusi dute	1
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE SISTEMA</b>	Eratzun berdea eta Igantzi-Arramendi guneak	-Eratzun berdearen ideia egoki ikusi da. Arramendiri dagokionez, asko jota inpaktu oso txikiko instalazioak izatea eskatu da. -Igantzi ez dute espazio berde erabilgarri bezala kontsideratzen, paso zona bat gehiago (penditza oso handia du)	1,5
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Udaletxe txikia eta eremuaren berantolamendua	-Langaitz eskola zen tokian, gertuko udal zerbitzu eraikin-bulego bat egingo dela baieztatu da. Honekin batera, 3. adinekoak “besterik gabe egoteko” (Jubilatuen egoitzara asko ez baitira joaten) eremu bat egokitu daitekeen galdetu dute -Eraikinaren birgaitzearekin, atzeko plazarekin (Aldakoenea) lotura ona egitea eskatzen da eta hau espazio publiko garrantzitsu bezala jasotzea. Egun zokoratua dago eta erabilera eskasa du	1
	Jubilatuen etxearen ingurua ber-egokitu	-Egungo Jubilatuen egoitza parean izenik ez duen plazatxo bat dago, esan denez erabilera handia ematen zaio. Proposatzen da: <ul style="list-style-type: none"> <li>Espazio Publiko garrantzitsu bezala hartu eta hobetzea</li> <li>Lotura hobetzea, bertatik Auzo Bihotzera doan kaletik (eta plaza eta bidea, oinezkoen espazio sarean txertatzea)</li> <li>Hau, egingo diren bi igogailuekin lotua dago (aurrerakinak jasotzen ez dituenak)</li> </ul>	1
	Igogailua	-Baieztatu da akordioa dagoela eta udalak konpromisoa duela bi igogailu egiteko: Galtzaraborda-Almandoz kaleen arteko kota gainditzen laguntzeko, 3.adineko egoitzatik pasatzen den kale-artean -Aita Donostia eta Mauricio Ravel artean igogailua jartzeko aukera aztertzeke eskatzen da	1
	Kirol eremuaren inguruan	-Frontoiaren kudeaketa: Egun klub bati lagata dela diote eta azpi-erabilia dela. Auzoak ezin du erabili eta ordu asko dago hutsik -Rokodromoa: Ingurua hobetu eta honen erabilera sustatu behar da. Egun ez du inork erabiltzen kasik	1
	Txakur eremua	-Oso handia da eta gainera txakurrek ondoko belardian ere kaka egiten dute. Batek galdetzen du: Eta hemen aparkalekuak egingo bagenitu alturan?	1

	Zahar etxe kooperatiba	-Aldundiarekin lur lagapen bat negoziatzen hasia zen jende talde bat, zahar etxe kooperatibo bat eraikitzeko asmoz inguruetan	1
	Señalizazioa	San Markos kalea/Almandoz kaletik, nahastuta, poligonoetara doazen kamioi handiak tarteka sartzen direla esan dute. Señalizazio hobea behar dela hori ez gertatzeko	1



## PONTIKA

Lau beraundarrekin batera Pontikako bi bizilagunekin egin da txangoa. Auzo Elkartekoa bat eta Jubilatue Elkartekoa bestea. Biek, iritzi pertsonala baino, beren elkarteetan urteetan landutako proposamen eta ekarpenak azaldu zituzten

AUZO BIHOTZA			
<b>Kokapena</b>	<p>Aurrerakinak “Jose Migel Barandiaran” ezartzen du, baina gehiegi zehaztu gabe. Pontikarrek Auzo Bihotzaren muga konkretuak proposatu dituzte, eremu hori elkar-gune nagusia dela iritzita (nahiz eta J.M.Barandiaran eremu zabalean egin behar den esku-hartzeak eremua aldatuko duela argi izan</p>  <p><i>Komertzio eta batez ere taberna-guneari lotuago ikusten da. Era berean kirol guneak gertu eta egingo den igogailu-pasarelaren eremu berean</i></p>		
Hausnarketa/ekarpenak			
<p>-Eremu zabal hori egun ezin da izan Auzo Bihotza, ez da “elkar-gunea”</p> <p>-Oso kontuan izan behar da, jada udalarekin adostu dena J.M.Barandiaran eremu zabalerako: Erreka ireki, parkea, 3. adin/gazte eremu libreak, eremu honen lotura Arditurri kalearen inguruarekin etab. Hau da eremua eta Auzo Bihotza bera moldatuko dutenak</p>			
Zer gehiago behar du, Auzo Bihotza izateko?			
Espazio Publikoa	Z. Publiko/Ekipamenduak	Z. Pribatuak	Mugikortasun/ Irigarritasun
<p>-Egingo den parke berria, ordenamendu berria, Aterpe handi bat planteatu behar da. Akaso, Auzo Bihotzean bertan ere bai, egoteko aukera emango duena (euri babesa eta eguzki babesa)</p>	<p>-Umeentzako ludoteka gertu egin behar da (adostua omen dago)</p> <p>-Jubilatuaren etxearen pareko lokala erabiltzeko eskaera egina dute. Izan ere egungoa txiki geratu da. Horrek auzo bihotzaren artikulazioari on egingo lioke</p>	<p>-Taberna asko dago baina gertuko komertzio oso gutxi. Egon da baina harategi, arraindegi etab.- itxi egin dute eta ez dago hori</p>	

EREMUA	ESKU-HARTZEAK	EKARPENAK	ADOSTASUN MAILA
<b>MUGIKORTASUN A</b>	Beraun/Pontika aparkalekuak	-Jada definitua dagoela (lau alturakoa eta banaketa) esan da. Pozik agertu dira Pontikakoak eta Beraungoek ere eredu on bezala ikusi dute	<b>1</b>
	Pontika Igantzi Igogailua	-Kokapenarekin oso ados -Ondo ikusten dute txirrindak sartu ahal izatea eta horrela bidegorri sarearen lotura egitea	<b>2,5</b>
	Arramendi Igogailua	-Oso ondo ikusten dute	<b>2,5</b>
	Beraun oinezko ardatz gisa		<b>3</b>
	Bidegorria Gamongoa Auzo berrirantz		<b>3</b>
	Urabasa-Aralar-Andoni Korta oinezkoentzako lehenetsi	-Oso ados agertu dira Pontikako bi auzo kideak	<b>1</b>
<b>ESPAZIO BERDE/LIBRE SISTEMA</b>	Eratzun berdea eta Igantzi-Arramendi gunek	-Eratzun berdearen ideia egoki ikusi da. Arramendiri dagokionez, asko jota inpaktu oso txikiko instalazioak izatea eskatu da. -Igantzi ez dute espazio berde erabilgarri bezala kontsideratzen, paso zona bat gehiago (penditza oso handia du)	<b>1,5</b>
<b>GEHIKUNTZAK</b>	Kirol gunearen azpiko eremua	Dutxak etab. Daude, baina azpi-erabilia. Horrekin zerbait egin daiteke? Edo kudeaketa hobetu, edo Ludoteka sartu? Ber-pentsatu espazio hori	<b>1</b>
	3. adineko espazioa	-Dagoena txiki geratu da, pilaketak eta batzuetan gatatzak.	<b>1</b>
	Jose Migel Barandiaren eremu zabala	-Landu den proposamena kontuan izan eta hori ez alboratzeko eskakizuna. Erreka atera eta espazio berde/irekiak, adin eta erabilera ezberdinentzako	<b>1</b>

# INKESTAREN EMAITZAK

## PRINTZIOEN LEHENESTEA eta HAUSNARKETA OROKORRAK

Zure ustez, zein dira Errenteriako HAPOrako kontuan hartu beharreko 10 printzipioetatik garrantzitsuenak?	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Espazio publikoaren berrantolaketa polizentrikoa: auzo bakoitzean (Auzo Bihotzak) kalitatezko elkarguneak sortzea, beharrezkoak diren zerbitzu/ekipamenduekin, eta elkarrekin eta hiriarekin lotzea (oinezkoentzako/bizikletentzako bideekin).	14/25
Espazio libre eta berdeak berrantolatzea: gehiago eta hobeto lotuta hirian eta ingurunearekin (Aiako Harria Parke Naturala, Lau Haizeta, etab.).	16/25
Hirigunean motorizatu gabeko mugikortasun-moduak bultzatzea: oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak lehenestea.	10/25
Trenbidea (ETS) lurperatzea: Altzako sarreratik Fanderiaraino, berreskuratutako espazioan oinezkoentzako etorbide berri bat sortzea eta Gaztañoko trenbide-pasagunea kentzea.	13/25
Hiri-finkapena: egungo hiria birgaitzeko eta berritzeko jarraibideak ezartzea, hiri-jarraitutasuna, irisgarritasun unibertsala eraginkortasun energetikoa bilatuz.	11/25
Planaren denbora-mugarako (15 urte) Bizitegi-eskaintza definitu eta handitzea: kokapena, jabetza-erregimena eta tipologiak.	06/25
Dagoeneko urbanizatuta dagoen lurzoruen erabilera optimizatzea: hiri- hutsuneak berreskuratzea, hiri-eraldatzea eta auzo guztien eta hiri-bilbearen arteko artikulazioa. Hiri-orbana gehiago ez zabaltzea.	05/25
Jarduera ekonomikoak ezartzea: hirian, eta hiri-inguruko eremuan industria-jarduera berriak ezartzen lagunduko duen lurzorua eskaintzea.	07/25
Landa-inguruneke lurzoruen erabilerak arautzea: haren babesa, ingurumen-hobekuntza eta lehen sektorearen jarduera sustatzeko.	12/25
Lurralde-integrazioa: hiria egokitzea eskualde mailan egiten diren proposamenak aprobetxatzeko: Pasaiako portua, trenbide-sare berria edo eskualdeko zikloturisten sareak.	05/25
Ez dakit.	01/25

**Errenteriako HAPoren diseinuari begira lehentasunik/printzipiorik falta da? Hiri ereduari buruzko hausnarketarik egin nahi duzu?**

**Herritarrek egindako ekarpenak**

Balkoirik ez duten, eta egitea bideragarria den etxebizitzetan, balkoi edo terrazak egitea ahalbidetzeko pausuak ematea eskatuko nuke. Bizilagunen ongizatea bermatze aldera. Itxialdian nabaritu dugu gabezia hori.

A petición: Respecto de los espacios naturales protegidos y especialmente en lo que se refiere al parque natural de Aiako Harria, creo que deberían promoverse las acciones necesarias , para conseguir que toda su extensión fuera de titularidad publica, para ello es preciso hacer desaparecer los enclavados públicos que existen en el interior del parque (en la actualidad 10) y para ello habría que avanzar ,tal y como se indica en el PGOU de 2004, por ejemplo favoreciendo y admitiendo todas las permutas que se puedan realizar con dichos enclavados.

Solicito que se actualice el criterio de permutas en el Monte Publico Añarbe, al objeto de eliminar enclavados particulares. Tenemos numerosa legislación que apoyan esta petición:

--PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA 2004.Se hace mención a varios aspectos como "...buscar ampliación de los bosques...." "...mejorar la calidad de vida de sus habitantes...." "...actualmente no se considerara ninguna permuta para estos enclavados, AUNQUE ESTA POLÍTICA HABRÁ DE MODIFICARSE con el fin de tender a una adquisición paulatina de estos enclavados existentes en el monte, PARA ASÍ PODER FACILITAR LA GESTIÓN DEL MISMO DESDE LA PERSPECTIVA DE UNA PROPIEDAD DE CARÁCTER TOTALMENTE PUBLICO...."

--NORMA FORAL 7/2006 DE 20 DE OCTUBRE,de MONTES DE GIPUZKOA. En el capítulo II, artículo 14 Desafectación de montes demaniales, en su punto 2 dice "...la exclusión parcial o permuta de una parte no significativa de un monte catalogado podrá ser autorizada a propuesta de la Administración Forestal o de la entidad titular, siempre que suponga una mejor definición de la superficie del monte o una mejora para su conservación y gestión....". Evidentemente eliminar un enclavado favorece lo que anteriormente se describe.

--DECRETO 241/1995, de 11 de abril de 1995, por el que se declara Parque Natural el área de Aiako-Harria, donde establece en el Artículo 11.-Derecho de tanteo y retracto. En su punto 3.- "Dentro de las posibilidades de los Departamentos correspondientes, se favorecerán los cambios de propiedad a través de permutas que permitan la adquisición, por la Administración Publica competente, de la titularidad de los predios situados en el interior del Parque Natural".

Solicito que se tramiten a la mayor brevedad las permutas pendientes.

Hiri-ereduaz hitz egiten denean, beti herrigunean pentsatzen da, eta alde batera uzten dira landa- ingurunekeo biztanleak, edozertatik urrun bizi baikara, eta etxebizitza sakabanatuetan, zerbitzurik gabe (gaueko argiztapena, ura, bideetako arekak, interneten gabezia eta telefonia mugikorraren estaldura). Era berean, udal-informazio falta nabarmendu behar da. Oihartzungo udalaren informazioa jaso genuen postontzietan, baina ez genuen ezer jaso Erreteriatik. Hori bai, zergak atzerapenik gabe ordaindu behar ditugu.

Hiri-arloarekin lotutako teoria feministaren egiturazko inklusioa

Erreteria kontsumo txikiko leku bizigarria izatea gustatuko litzaidake. Etengabe eta egunero naturarekin harremanetan, bizikidetzaren aldeko proposamenekin. Pertsonak isolatzea saihestuz. Horretarako, uste dut garrantzitsua dela eremu ilunak, zaindu gabeak eta degradatuak ezabatzea. Batez ere auzo "ez nobleetan", desberdintasuna, klasismoa eta zapalkuntza eragiten baitituzte.

Pertsonen eguneroko bizitza nahi dugun hiriaren diseinuaren erdigunean jartzea, egiten duten jardueraren arabera bereizi gabe eta ordaindu gabeko zaintza-, etxe- edo ugalketa-lanari erantzunda.

Ez ahaztu, gero eta berdeagoa den hiri batera joateko beharraz jabetu arren, garraiobide garbiak (oinez, bizikletaz, garraio publiko ez-kutsagarria) erabiltzera bideratua, automobil-parke handi bat dagoela, aparkatzeko espazioak behar dituen. Era berean, ibilgailuen trafikoa baretzea eta, ahal den neurrian, ahalik eta ibilgailu gehien herritik ateratzen saiatzea komeni da.

#### **Ondorioak:**

Printzipioen lehenesteari dagokionez, 10 printzipioen artean 5 aukeratzeko aukera izan dute parte hartzaileek. Printzipioen artean garrantzitsu bezala aukeratu dituzte, 16,14,13, 12 eta 11 bozkarekin: Espazio berdea berrantolatzea eta hiria eta ingurunearen arteko lotura hobetzea, auzo bihotzen ideia, trenbidearen lurperatzea, landa ingurunekeo lurzorua erabilera arautzea, egungo hiria birgaitzeko eta berritzeko jarraibideak ezartzea.

HAPOari lotuta, faltan botatzen dituzten printzipioz galdegiten zaienean, pertsonen eguneroko bizitza erdigunean jartzeaz hitz egiten dute batzuek, hiri arloko teoria feminista aplikatzeaz. Hortaz gain, landa eremua ikuspegi honetan ez dela kontuan izaten aipatzen da, baita mugikortasun garbiaren beharraz.

## E. 1. ESPAZIO PUBLIKOA: AUZOETAKO HIRI POLIZENTRIKO BATERANTZ

E.1.1. Ados al zaude printzipio honekin?		
<p><i>Erreteria</i> auzoetako hiria da. Hori aitortu behar da, eta hiri polizentriko bat planifikatu, non "auzo guztiek auzoaren espazio libreak, adierazgarriak", elkarguneak eta biziguneak izango dituzten: "Auzoaren erreferentzia eta identitate lekua, auzoaren bihotz gisa, aurrerantzean" auzo bihotza ", non, gainera, hirugarren sektoreko jarduerak, bereziki merkataritzakoak eta zuzkidurazkoak aurkitzeko aukera emango den".</p>		
Bai <b>08/25</b>	Ez <b>0/25</b>	Ez dakit <b>02/25</b>
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
<p>Argi dago Auzo bakoitzak bere nortasuna duela eta hori aberasgarria iruditzen zait eta nahiz eta denok osatzen dugun edo egiten dugun herria nire ustez auzo bakoitzaren dinamika eta izaera propioak ere bultzatu eta babestu behar dira.</p>		
<p>Baina arazo handia dago landa-eremuko biztanleekin (Zamalbide, baserriak, etab.). Ez zaigu oinarrizko zerbitzurik ematen, hirian egunerokoak baitira: udal-informazioa eta jarduerari buruzko informazioa (ez zaigu iristen), Oiartzungo udalaren informazioa jasotzen dugu postontzian, baina Erreteriarako informaziorik ez. Ez dugu argiteria publikorik. Landa-bideak behar bezala mantendu gabe daude, eta bide asko arketarik gabe egin ziren urak arintzeko, higadurak eragindako kalteak eraginez. Interneti dagokionez: ez daukagu zuntz optikorik, ezta telefonia mugikorreko estaldurarik ere. Ez dago edateko uririk; iturburu bat dugu, 2 urte daramatzana kutsatuta eroritako zuhaitz batek eragindako kalteengatik, eta Erreteriarako udal-jabetzakoa zen. Zuhaitzak erori direlako bideak garbitzeko lanak egin behar ditugunean (udal-zerbitzuak ezin direlako bertara joan), Erreteriarako Udalak ukatu egin digu gastuen erreklamazioa. Baina hori bai, zergak guztiok bezala ordaindu behar ditugu. Udaletxera joan behar dugu hondakin organikoentzako poltsak jasotzera, eta 10 km joan + 10 km itzuli egin behar ditugu, autoz (izan ere, hurbilen dagoen garraio publikoa 6 km-ra dago), barregarria da.</p>		
<p>Diskurtsoen eta errealitatearen arteko distantzia landu behar da. Hitz horiek oso "politikak" dira, baina errealitatearekin oso urrun daude eta ez dute HAPOn "benetako" lekua izango. Beste tresna batzuk behar dira.</p>		
<p>Uste dut desberdintasunak daudela auzoen artean. Gizarte-klase jakin batzuen leku zehatzak sortzen ari dira. 60ko hamarkadan Alaberga eta Beraunekin gertatu zen bezala, Extremaduratik etorritako pertsonekin (gehienak). Arriskua dago auzoa sustatzen badugu eta besteekin batzen ez badugu, nortasun nabarmena duten eta zenbait mugimendu bultzatzen dituzten leku bihurtzeko; izan ere, nortasun horrek, eta ondo dakigunez, segregazioa, diskriminazioa eta aukera-desberdintasuna bultzatzen ditu.</p>		

### E.1.2. AUZO BIHOTZAK ados al zaude proposatutako auzo bihotzak lokalizatzearekin?

Bai 05/25	Ez 01/25	Ez dakit 03/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
Auzo bakoitzak erabaki beharko luke non kokatu beraien auzoko AUZO BIHOTZAK.		
Landa-eremuko biztanleak berriz ere AUZO BIHOTZA gabe geratzen dira.		
Kokapena ez da bere horretan garrantzitsua, birsortzeko proiektu integralago baten barruan izatea baizik.		
Ez ditut kokapen guztiak ezagutzen, ezta harekin benetan zer lortu nahi den ere.		

### E.1.3. Zure ustez, ezaugarri horietatik zeintzuk dira lehentasunezkoak zure auzoko Auzo Bihotza biltzeko lekua izan dadin?

#### Herritarrek aukeratutako erantzunak

Espazio publiko erakargarria eta zabala izan behar du	07/25
Berdegunak, zuhaitzak eta itzala izan behar ditu	04/25
Eremu estali zabala izan behar du	09/25
Kultura- edo jolas-jardueretarako agertoki txiki bat izan behar du	04/25
Kalitatezko hiri-altzariak izan behar ditu: Bankuak, iturriak, etab.	03/25
Adin desberdinetako haurrentzako parkeak izan behar ditu	01/25
Hurbileko udal-zerbitzuak aurkitu behar dira hor, hala nola herritarrentzako arreta-bulegoak edo gizarte-zerbitzuak.	03/25
Kultura-ekipamenduak lokalizatu behar dira	03/25
Kirol-ekipamenduak lokalizatu behar dira	04/25
Ziurtatu behar da etxabeek merkataritza-/ostalaritza-jarduera hartuko dutela, lekuaren bizitza baino gehiago.	03/25
Eguneroko bizitzan beharrezkoak diren zerbitzu pribatuak sustatu behar dira (denda txikiak, osasun-zerbitzuak, etab.)	.03/25
Kalitatezko oinezkoentzako bide bat iritsi behar da, beste auzo batzuekin eta erdigunearekin lotzeko	05/25
Kalitatezko bizikleta-bide bat iritsi behar da, beste auzo batzuekin eta erdigunearekin lotzeko.	03/25
Garraio publikoa iritsi behar da	01/25
ED/EDE	0/25

### Erantzunei gehitutakoak

Aldez aurretik kontzientziatzeko eta nortasuna berreskuratzeko lan bat egitea, eta leku horietako bakoitzean herritarrek bere esku hartzea (auzolanak, iterbentzio artistikoak, etab.), jabetze-lan sinboliko gisa.

Adin guztietako pertsonak topa ditzakeen espazioa izan behar du, belaunaldien arteko topaketa bultzatuz.

Fanderiak goian adierazitako zerbitzu gehienak ditu, baina nire ustez ezinbestekoak diren bi gai daude: Auzoko BLEAk jada eskatu duen eremu estali bat. Auzoko oinezkoen konexioen segurtasuna bermatzea, batez ere asteburuetan gauez gazteentzat.

**E.1.4. Multzoko plano honetan honako hauek ikus ditzakegu: gorritz funtsezko espazio publikoak (horien artean auzo bihotzak), horiz konexioko oinezkoen sarea eta berdez espazio publikoen inguruan eratzen diren berdeguneak/libreak, "Erantzun berde" bat. Errenteriako auzo-hiriko bizi-kalitatea hobetzeko proposamen integral ona dela ikusten al dugu?**

Bai **09/25**

Ez **0/25**

Ez dakit **01/25**

### Gehitutako gogoetak

Azpimarratu nahi dut hirigunean bizi diren biztanleak baino ez direla kontuan hartzen ari. Zergatik ahazten gaituzue Landa-ingurunean bizi garenok?

Auzo bakoitzean auzo bihotzak izatea oso ideia ona dela uste dut.

Kolore-orbanak dira, hiria identitatez, memoriaz, espazioz, denboraz... egina dago. Non daude eten-puntuak, non markatzen da espazio bakoitzaren jatorrizko izaera, etab.?


Denbora gehiago behar dut aztertzeko. Baita espazio horiez gozatuko luketen beste pertsona batzuekin kontrastatzea ere.

### Ondorioak:

Espazio publikoaren gaiaz galdetzean, orokorrean jendea, hiri polizentrikoaren ideiarekin ados ageri da, baina auzoen arteko desoreka eta ezberdintasunak ezagututa hori egikaritzean zalantzak agertzen dira. Landa eremuko auzoek dituzten arazoak eta gabeziak plazaratzen dira.

Parte hartzaileen erdiak baino gutxiago erantzun dio galdera honi, baina parte hartu duen gehiengoak ez du auzo bihotzen ideiarekin kontrako iritzia adierazten. Hurrengo galderan auzo bihotzean garrantzitsuak diren bost ezaugarri aukera behar zituzten parte hartzaileek, eta lehentasunezko aipatzen dituztenen artean honek daude: eremu estali zabal bat, espazio publiko eskuragarri eta zabala izatea, iristeko kalitatezko oinezko bideak, kirol ekipamenduak, agertokia eta eremu berdeak. Orokorrean ondo baloratzen dira markatutako espazio publikoak, baina lekuan lekuko identitatea nola zaindu eta bertako biztanleriaren kontrastatzeko beharrak ateratzen dira.





## E.2. MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA: KONEKTAGARRITASUN ONERAKO LAU ARDATZ. HURBILEKO HIRIA OINEZ


Ados al zaude printzipio honekin?		
<p><i>"Errenteriaren dimentsioak eta auzoen arteko distantziek hiri bat oinez eta bizikletaz egitea ahalbidetzen dute. Hau gauzatzea izango da lehentasuna ibilgailu pribatuaren egungo erabilera ahaztu gabe baina hau gutxitzea ahalbidetuko duen hiri baten bila. Horretarako, kalitatezko sare bat sortu beharko da, ondo konektatuko duena (oinetz eta bizikletaz), eta egoki diren bitarteko mekaniko osagarriak ondo zehaztu beharko dira: pasabideak, zubiak eta igogailuak".</i></p>		
Bai <b>09/25</b>	Ez <b>0/25</b>	Ez dakit <b>01/25</b>
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
<p>Bizikleta elektriko alokairua, Donostian dagoenaren antzera, eta Donostia eta Oarsoaldeako herriekin elkarbanatua. Jende askok erabiliko bailuke egunerokotasunean.</p>		
<p>Pertsona bakarreko garraibide jasangarrien erabilera sustatzea eta babestea, hala nola patinete elektrikoa, betiere esparru arautu eta seguru baten barruan, non ardatz nagusia oinezkoa izango den.</p>		
<p>Baina, era berean, KALITATEZKO SARE bat sortu beharko zenukete landa-inguruneko komunikazio-bideetan. Gutaz ahazten zarete beti. Landa-bideak estuak dira, 3 metroko zabalera dute, eta ez dago lekurik beste ibilgailu batekin gurutzatzeko, ez dago bizikletentzako lekurik, ezta oinezkoentzako espaloirik ere. 3 metroko zabalera, autoak, traktoreak, bizikletak eta oinezkoak sartu behar dira. Ah, eta basoko kamioiren bat. Landa-ingurunean ere ez dago bide-seinalerik, ez eta lekuak, baserriak eta abar adierazteko kartelik ere.</p>		
<p>Zorionez, Fanderian bizi naiz, eta oinezkoentzako eta bizikletentzako bide egokiak ditugu. Komenigarria litzateke oinezkoek bidegorrien erabilera kontrolatzea, eta bizikletek eta patineteek egiten duten espaloien erabilera kontrolatzea; izan ere, gero eta gehiago dira eta abiadura handiegia dute. Ez dugu pasarelarik, zubirik edo igogailurik behar. Asteburuetan oinezkoen segurtasuna bermatu behar da, batez ere gauz gazteena.</p>		

4 ardatzen artikulazioa egokia dela uste duzu?		
Bai 06/25	Ez 0/25	Ez dakit 04/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
Baina Aldura joateko, adibidez?		
Dena ardatz horiek zeharkatzen dituzten espazioen arabera da, ardatz gisa konfiguratzeko. Ez da nahikoa orban bat plano batean, ikusi behar da zer espazio zeharkatzen dituzten, horien jarraitutasuna eta kalitatea... "hiri-ikuspegia" behar da, hau da, integrala benetan, eta ez soilik hitzetan edo kolore-orbanetan.		

E.2.3. Sare honen inguruan, erlazionatutako elementu horietako zeintzuk dira oinezko/bizikleten sareak funtzionatu dezan berebiziko garrantzia dutenak? Kontuan hartu behar dira zure irizpidearen arabera?	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Gune berdez/librez ondo inguratuta egotea (eraztun berdea)	07/25
Ondo ordenatzea bizikletarako dela eta oinezkoentzat, ez nahastea	06/25
Hirikoak ez diren eremuekin konektatzea: industrialdea, Zamalbide, Zentolen eta aisialdirako guneak, hala nola Aiako Harriak edo Lau Haizeta.	05/25
Sareko plaza eta espazio publikoak kalitatezkoak izatea eta elementu hauek izatea: iturriak, bainua, altzariak, itzala, babeslekua, etab	06/25
ED/EDE	0/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Hiri bizi bat zeharkatu dezala bere espazio guztietan.	
La Paz parkearen inguruan komun publiko bat egitea gomendagarria izango litzateke, bertan gazte asko eta adineko pertsonak egoten baitira.	

**Ondorioak:**

Parte hartzaileen gehiengoak, Erreterriak oinez eta bizikletaz mugitzeko eskala egokia duela uste du eta bizikleta eta oinezko kalitatezko sare bat garatzearekin ados agertzen da. Lau ardatzen artikulazioari dagokionez ez da kontrako iritzirik agertzen, baina ezjakintasuna nabari da, puntu zehatzekiko eta zeharkatuko dituzten espazioen trataerarekiko. Sare honetan lehentasunezko ikusten dituzte, gune berdez inguratuta egotea, bizikleta eta oinezkoen harremana ordenatzeko beharra, sareak kalitatezko espazio publikoak lotu ditzala eta landa eremuarekin konektatzea.



### E.3. IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA UDALERRIAN: ERRENTERIA HURBILA, EROSOA, INKLUSIBOA ETA JASANGARRIA

Ados al zaude printzipio honekin?		
<p>"Helburua aurretik zegoen hiria funtsean sendotzea da, baina ez izoztea, baizik eta eraldatzea, eskuragarriagoa, seguruagoa eta atseginagoa izan dadin. Hiri-bilbean kirurgiaz esku hartzea, ibilbide eraginkorrek antolatzeko (oinezkoak, zikloturistak, motordunak), oinezkoak eta bizikleta lehenetsiz. Horrek esan nahi du esku-hartze sakona egin behar dela aipatutako 4 ardatzak, ibilbideak eta hiri-logika artikulatu ahal izateko: trenbidea (ETS) lurperatzea hirigunetik igarotzean".</p>		
Bai 07/25	Ez 0/25	Ez dakit 2/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
"Betikoa" dela iruditzen zait.		

E.3.2. Aurrerakinak planteatzen dituen azpi-ardatzetatik, zeintzuk dira zure ustez lehentasunekoak? (2 aukera ditzakezu)	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Irisingarritasun unibertsala: 4 ardatzak, eta zubiak, pasabideak eta igogailuak jartzea	06/25
Motorrik gabeko mugikortasuna: hiria oinezkoentzat eta bizikletentzat berreskuratzea	06/25
Garraio publikoa: trenbidea lurperatzea eta haren erabilera indartzea	02/25
Mugikortasun motorizatua: zirkulazio-eraztun bikoitza, esku-hartze taktikoak (trafikoa lasaitzeko) eta aparkalekuak	05/25
ED/EDE	0/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Mugikortasun motorizatua ez da behar-beharrezkoa Errenteria bezalako udalerrri batean. Mendekotasuna duten pertsonen karga deskarga eta irisingarritasuna bermatzearekin nahikoa.	

**E.3.3. Zubiak, pasabideak eta igogailuak: proposatutako esku-hartze espezifikoen artean, zein dira beharrezkoak? Faltan botatzen duzu besterik?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Oiartzun gaineko zubia Altzate eta Iztieta artean	04/25
Igogailu publikoa eta pasabidea Altzaten, Pasaiako badiaren ibilbidearekin lotuta. Igogailu publikoa Altzaten, Lezoko mugan	05/25
Igogailu publikoa Pontika eta Igantzi artean	06/25
Igogailu publikoa Jose Miguel Baradiaran parkearen eta Arramendiren artean	03/25
Igogailu publikoa Gaztañon	05/25
Alaberga eta Galtzaraborda arteko pasabidea parkearen gainean	05/25
Arramendi parkearen eta Palazio-zaharraren arteko pasabidea, saihesbidearen gainean	03/25
ED/EDE	02/25

**Erantzunei gehitutakoak**

Esku-hartze guztiak bidezkoak eta beharrezkoak iruditzen zaizkit.

Oro har, ondo iruditzen zaizkit denak, baina kontuan izan behar da elementu mota horiek, askotan, segurtasunik eza hautematen duten espazioak eta lekuak sortzen dituztela. Batera lan egiten ez bada, puntu kritiko bihur daitezke.

Pertsonen ohiko ibilbideak izan behar dute, eta ez dute behartu behar joan-etorri luzeagoak egitera.

**E.3.4. Oinezkoentzako/bizikletentzako espazioak berreskuratzea: proposatutako esku-hartze espezifikoen artean, zein dira beharrezkoak? Faltan botatzen duzu besterik?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Abiadura moteltzea eta trafikoa baretzea: Alaberga auzoa kalea, Sorgintzulo kalea, Beraun kalea	04/25
Oinezkoentzako espazioa berreskuratzea (oinetzkoentzako kalearen azaleraren % 60): Sorgintzulo kalea, Galtzaraborda kalea eta San Marko kalea, aipatutako ardatzez gain.	05/25
Oinezkoen ahalduntzea eta lehentasuna azpimarratzeko neurriak: Sorgintzulo kalea, Urbasa kalea - Aralar plaza, Andoni Korta kalea - Aralar plaza, aipatutako ardatzez gain	05/25
Lehentasunezko sareko ibilbideen kalitatea (zuhaitzak, landaretza oro har, altzariak...): Aiako Harria kalea, Maurice Ravel kalea, Pontika kalea, eta aipatutako ardatzak.	06/25
Ibilbideen informazio-seinaleak	06/25
ED/EDE	0/25

**Erantzunei gehitutakoak**

Landa-eremuak ere oinezkoak gara eta bizikleta erabiltzen dugu... Landa-bideak hondatuta daude, ez dago arekarik, ez dago espaloirik, etab.

Ikuspegi integrala oinarritzkoa da. Begirada batek eta, ondorioz, esku-hartze sektorial batek ez du ahalbidetzen hiri-garapeneko ereduaren aldaketa sistemikorik, hori baita behar dena.

**E.3.5. bizikleta bidea: proposatutako esku-hartze espezifikoen artean, zein dira zure ustez beharrezkoak? Faltan botatzen duzu besterik?**

<b>Herritarrek aukeratutako erantzunak</b>	
11,8 km-tik 25,1 km-ra igaro behar da sarea.	<b>06/25</b>
Bide mistoa (oinezkoa/bizikleta) ezartzea printzipio orokor gisa.	<b>01/25</b>
Bide mistoa saihestea, printzipio gisa: azterketa xehatua zati bakoitzerako, eta kasu bakoitzean honako hauek hautatu beharko dira: bizikleta-pista, bizikleta-geltokia, bizikleta-errea galtzadan, bizikleta-errea kontramanozko galtzadan, bizikleta-banda, bizikleta-kalea, etab.	<b>07/25</b>
Konektagarritasuna: hirigune nagusiarekin auzo bihotzak eta sare hori eskualdeko sarearekin lotuko dituen ziklobia-sarea artikulatzea.	<b>05/25</b>
Bizikletentzako aparkalekuak auzo guztietan ziurtatzea	<b>06/25</b>
ED/EDE	<b>01/25</b>
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Bide mistoa, bizikidetza-printzipio gisa. Ez erabilera eskusiboko espazioak. Bidegorria ez da lasterketak egiteko leku bat, erabilera mixtoak esan nahi du pertsonen erabilera partekatu behar dugula.	
Bizikleta motorrik gabeko garraibidea da, ez litzateke maila berean harentzako eta pertsonentzako espaziorik diseinatu behar.	

**E.3.6. Trenbidea lurperatzea: Aurrerakinak planteatzen du Altzako sarreratik Fanderiaraino lurperatu behar dela, eta, beraz, trenbidea erdigunetik eta Gaztañotik igarotzen denean lurperatu behar dela (gaur egun, ETSk Altza eta Galtzaraborda artean bakarrik lurperatzen du sarea). Zure ustez, zein neurritan egin behar da lan Altzatik Fanderiarako trena lurperatzeko?**

<b>Herritarrek aukeratutako erantzunak</b>	
Funtsezkoa da, gakoa	<b>04/25</b>
Garrantzitsua izango litzateke	<b>03/25</b>
Hiria hobetuko lukeela uste dut, baina ez dut ikusten lehenbailehen egin behar denik	<b>01/25</b>
Galtzarabordaraino lurperatuz gero, nahikoa litzateke	<b>0/25</b>
Ez da lehentasuna nire ustez	<b>02/25</b>
ED/EDE	<b>0/25</b>
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Zeregin horretan dirua gastatu baino, nahiago dut geltoki berri bat egitea planteatu, adibidez Txikierrin, Mamuten, edo Perurenan... landa-eremuko herritarrok topoan bidaiatzeko aukeraren bat izan dezagun.	
Uste dut hobe dela diruan inbertitzea hurbileko esku-hartzeetan, azpiegitura handietan baino, beti bezala.	
Trenbidea oso muga fisiko garrantzitsuak da. Auzoak bereizten ditu, etxeen lehen solairuetan argirik ez dago, gehiegizko zaratak trafikoari ere eragiten dio, eta modu eraginkorragoan antola daiteke.	

**E.3.7. Lurperatzeak Galtzarabordako geltoki berri bat eskatzen du. Irisgarritasuna hobetzeko eta trenaren erabilera indartzeko, Aurrerakinak "kanoi" bat eraikitzea proposatzen du, geltokia Errenteriako goialdeekin lotzeko (Beraun eta Galtzaraborda, Alaberga eta Kaputxinoko goialdeak). Zer iruditzen zaizu?**

Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Oso beharrezkoa	03/25
Ondo	03/25
Ez da beharrezkoa	03/25
ED/EDE	0/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Zeregin horretan dirua gastatu baino, nahiago dut geltoki berri bat egitea planteatu, adibidez Txikierrdin, Mamuten, edo Perurenan... landa-eremuko herritarrok topoan bidaiatzeko aukeraren bat izan dezagun.	
Proiektu horrek garraio bide hori modu jarraituagoan eta neurri handiagoan erabiltzea erraztuko luke, eta, beraz, eremu horietako ibilgailuen erabilera murriztuko litzateke.	
Azpiegitura handirik ez, gutxieneko esku-hartzeak, hurbilekoak eta eraginkorrak, agian... nahiz eta hirigintzak ez duen inoiz jakin, ezta makroekonomiak ere, jakina.	
Erdigunera gehiago batu behar duten auzoak dira. Maila berean jarri behar dira.	
Datu gehiago behar ditut	

**E.3.8. Lurperatzeak aukera berriak ematen dizkio hiriari. Aurrerakinak jasotzen dituen artean, zeintzuk iruditzen zaizkizu interesgarrienak?**

Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Trenbidearen etorbide berria, oinezkoentzako lehentasunarekin zati osoan.	02/25
Gaztañoko trenbide-pasagunea kentzea.	07/25
Gaztañoko trenbideen eta kotxeren espazioa berreskuratzea eta ingurua berrantolatzea, auzoa erdigunearekin lotzeko.	01/25
Galtzarabordako geltoki berria eta goiko auzoekin lotzeko kanoia.	04/25
ED/EDE	0/25

**E.3.9. Zure ustez, ibilgailu motorizatu pribatuak leku gehiegi hartzen du hirian (errepideak, aparkalekuak, biribilguneak, etab.) eta oinezkoen eta bizikletaren alde orekatu behar da?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Bai **07/25**

Ez **02/25**

ED/EDE **0/25**

**Erantzunei gehitutakoak**

Nazkatuta nago ibilgailu motorizata zigortzeaz. Landa-ingurunean bizi garenok automobila erabili behar dugu joan-etorriak egiteko. Aparkatzeko leku gehiago jarri beharko lirateke. Are gehiago lagundu beharko litzateke diruz ibilgailu elektrikoa erostea. Zirkulazio-zerga kobratzen den bitartean, ezin zaie ibilgailuei zirkulatzea galarazi

Motordun ibilgailuak herritik kanpo utzi behar ditugu. Eta herrira, garraio publikoko sare eraginkor batekin iritsi, aparkaleku-gune handiak auzoekin lotuko dituen.

**3.10. Aurrerakinak "eraztun bikoitzeko" bide-eskema planteatzen du hiriaren barruan. Hau da, edukiera ertaineko bi eraztun, ibilgailuentzat, Errenteriara sartzeko/irteteko errepideekin konektatuta. Hortik aurrera, autoaren/motor pribatuaren presentzia/abiadura mugatzea eraztunen barruko espazioetan. Zer iruditzen zaizu planteamendua?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Oso ondo, ez du eragozten autoz mugitzea, baina mugatu egiten du, oinezkoei espazioak askatu ahal izateko.

**05/25**

Uste dut gehiegi mugatzen duela autoa/motorra leku guztietara iristea.

**03/25**

ED/EDE

**01/25**

**Erantzunei gehitutakoak**

Nazkatuta nago motordun ibilgailua zigortzeaz. Landa-ingurunean bizi garenok autoa erabili behar dugu joan-etorriak egiteko. Aparkatzeko leku gehiago jarri beharko lirateke. Are gehiago lagundu beharko litzateke diruz ibilgailu elektrikoa erostea. Zirkulazio-zerga kobratzen den bitartean, ezin zaie ibilgailuei zirkulatzea galarazi.

Nik nahiago dut ibilgailuan sartzeko muga. Doako aparkaleku handietan uztea ona iruditzen zait zarata kentzeko, eta herria motorrik eta makinarik gabeko leku bihurtzea.

Denbora gehiago behar dut aztertzeko

**E. 3.11. Aurrerakinak eztabaidarako alternatiba batzuk proposatzen ditu, ardatz honen eremu batzuen funtzionamendua/erabilera alda dezaketenak. Horien artean, zein iruditzen zaizkizu egokiak?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

B. Nafarroa etorbideko "by pass"-a, "Mártires de de la Libertad"-etik: Gamon Zumarditik igarotzen den ibilgailu motordunari noizean behin edo betiko ixteko aukera emango luke, espazio publiko hori ibairaino eramanez.	<b>03/25</b>
D. Hirigunera sartzeko saturazioak saihestea: Biteri hiribideko trafikoa bide periferiko eta edukiera handiagoko batera eramateko aukera baloratzea: Bittor Idiazabal.	<b>0/25</b>
E. Nafarroa etorbideko biribilgunea zabaltzea Alabergan eta mugikortasun motorizatua berrantolatzea Iztietan. Erantsitako planoan azaltzen da aukera hori.	<b>05/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

Ez zait egokia iruditzen bide bakar bat ere moztea. Aitzitik, bizkortasun handiagoa eman behar zaie, auto-ilarak saihesteko eta, horrela, ibilgailu asko dauden sentsazioa ezabatzeko.

Ez nuke mugikortasun motorizatuan arreta handirik jarriko... kontraesankorra iruditzen zait, ez baita bizikleta-oinezkoen gaia "diskurtsoan" geratzen.

Denbora gehiago behar dut aztertzeko

**E. 3. 12. Aurrerakinak aparkaleku sorta berri bat planteatzen du, lurpean edo altueran. Jabetzaren aurrean kudeaketa publikoaren eredu eta erabilera lehenesten du. Aparkaleku berri hauek Pontikan kokatuko lirakeke. Esnabide (San Markos kalea), "Mártires de la Libertad", Gamon Zumardiaren azpiko Linoko aparkalekua handitzea, ETSren antzinako kotxetegiak, eta Tomas Lopez kalea. Zer iruditzen zaizu?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Gehiegi da, autoentzako leku nahikoa dago.	<b>01/25</b>
Ondo dago, aparkatzeko arazo bat dago eta ondo ikusten dut planteatzen dena.	<b>06/25</b>
Ez da nahikoa, ez du aparkalekuaren arazoa konponduko.	<b>02/25</b>
ED/EDE	<b>01/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

Ondo ikusten dut aparkaleku-sorta berria sortzea, baina auzo batzuentzat ez dut uste nahikoak direnik.

Izan ere, esaten da ibilgailu pribatuaren erabilera mugatu nahi dela eta oinezko eta bizikletazko bazterketak bultzatu nahi direla, eta, ondoren, GALDERA hau!!!! Betikoan gaude, orduan.

Aparkatzeko behar diren leku zabalak

Denbora gehiago behar dut aztertzeko



**Ondorioak:**

Aurrerakinean aipatzen diren azpi ardatzetatik, irisgarritasun unibertsala eta motorrik gabeko hiri mugikortasunaren gaia dira lehenetsuz aipatzen direnak, horren atzean aparkalekuak eta zirkulazio eratzun bikoitza.

Igogailu, pasabideen...esku hartze espezifikoen artean, Pontika eta Igantzi lotzen dituen lehenesten dute parte hartzaileek. Alabergako pasabidearekin batera, Altzate eta Gaztañoko igogailuak ondoren.

Oinezko bideei lotutako interbentzioetan, hauen ibilbideen seinalizazioa, kalitatea, oinezkoen lehenetsunak markatzeko neurriak, eta oro har oinezkoentzako kaleak berreskuratzea direla lehenesten diren neurriak. Bizikleta bideei dagokionez, bizikleta bide mixtoak ekiditea da gehien aipatzen den neurria, horrekin batera doaz bizikleta sarea handitzea eta auzoetan beharrezko aparkalekuak jartzea.

Gehiengoak, Altza eta fanderia arteko trenbidea lurperatzea funtsezko edo beharrezko ikusten du, baina alde ekonomikoa baloratuz, ekonomikoagoa izanda beharrezkoagoa izango litzatekeela landa eremurako geltoki bat jartzea. Lurperatzeak ahalbidetu dezakeen estazio berria goiko auzoetara kanoi baten bidez lotzea beharrezko baloratzen da, alde batetik zalantzak sortzen dira kostu ekonomikoarekin eta bestalde oso baliagarri ikusten da auzo hauek konektatu eta oinezkoen mugikortasuna inzentibatzen.

Lurperatzeak sortzen dituen aukerak baloratzean, Gaztañoko trenbidearen espazioa berrantolatu eta espazioa berreskuratzea baloratzen da interesgarriena.

Ibilgailu motorizatuez galdetzean, ibilgailu pribatuak hirian leku larregi hartzen duela baloratzen du gehiengoak. Eratzunen barrualdean motordun ibilgailuentzat mugak jartzeari buruz, erantzundako erdiak ondo baloratzen du eta beste erdiak zalantzak ditu edo ez du begi honez ikusten, kotxearen erabilera beharrezko denean (landa eremutik etortzeko adibidez) nola kudeatuko den aipatzen da.

Aurrerakinean mugikortasun ardatzen funtzionamendua alda dezaketen alternatiben artean, "Nafarroa etorbideko biribilgunea zabaltzea Alabergan eta mugikortasun motorizatua berrantolatzea Iztietan" baloratzen da egokien.

Aparkalekuei dagokienez, erdiak baino gehiagok aparkaleku gehiago sortzearen aldeko apustua egiten du, aparkalekuak arazo bat direla adierazten dute. Bestalde beste iritzi batzuk zalantzan jartzen dute oinezkoen mugikortasuna lehenetsia eta neurri hau bide berean doazenik.

## E.4. ETXEBIZITZA: ESKAINTZA HANDITZEA, HIRI-ORBANA GEHIAGO ZABALDU GABE

Ados al zaude printzipio honekin?		
<i>"Erreterian etxebizitza-eskaintzaren arazoa dago, neurri batean, azken urteotan oso gutxi eraiki delako. Etxebizitza hutsak oso gutxi dira. Horregatik, hiri-orbana aurreko plangintzetan aurreikusitakoa baino gehiago handitu gabe, eskaintza handitu behar da: gehienez 2.400 etxebizitza 15 urtean, eta tipologiari buruz hausnartuz "</i>		
Bai 05/25	Ez 02/25	ED/EDE 0/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
Nire ustez, eskaera txikia denez, etxebizitzaren prezioak garestitu egiten dira, eta horrek lan finkoa eta baldintza guztiak ditugun gazteok etxebizitza bat eskuratzea zailtzen du		

E.4.2. Aurrerakinak 1.190 etxebizitzaren banaketa zehazten du. Zer iruditzen zaizu?	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Ondo	03/25
Uste dut zenbakia ez dela zuzena, oro har	0/25
Uste dut banaketa ez dela zuzena	0/25
Uste dut BPE kopurua ez dela zuzena	0/25
Uste dut BPEaren banaketa ez dela zuzena	0/25
ED/EDE	03/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Alokairu sozialeko etxebizitzaren eskaintza behar da	

E.4.3. Etxebizitzaren inguruan zure ustez kontuan hartu beharreko hausnarketarik egin nahi duzu? iruditzen zaizu?	
Herritarrek erantzundakoa	
Kanpoko espazioa. Terraza edo jardina. Etxebizitza ez oso altuak.	
Eginak dauden etxebizitzetan berriztapen eta egokitzapenak egitea ahalbidetzea, batez ere balkoi eta terrazak egiteko aukera ematea. Itxialdian balkoirik eduki ez dugunok, bere beharra zenbatekoa den ikusi dugulako	
Gauza zaila bada ere eta Erreterriko jende asko aurka badago ere, uste dut beharrezkoa dela epe laburrean etxebizitza gehiago eraikitzea.	

**E.4.4. Esnabide: etxebizitza, bide-antolamendua, garajeak eta ekipamendua**

Bai <b>04/25</b>	Ez <b>0/25</b>	ED/EDE <b>3/25</b>
------------------	----------------	--------------------

**E.4.5. Gamongoa-Loidi.**

Bai <b>04/25</b>	Ez <b>01/25</b>	ED/EDE <b>02/25</b>
------------------	-----------------	---------------------

**Erantzunen zehaztapenak**

Uste dut etxebizitzak baxuak izan beharko liratekeela eta ondo konektatu beharko liratekeela Pontikarekin.

**E.4.6. Tolare Berri: etxebizitza eta saihebidetza gehiago edo kontserbatzea?****Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Dentsitate txikiko bizitegi-garapena eta hiriarekin lotzeko saihebidetza eraikitzea.	<b>04/25</b>
Bizitegi-garapen indartsua baztertzea (tokiko hirigintza-hobekuntzarik gabe) eta, horrela, saihebidetza eraikitzea baztertzea.	<b>02/25</b>
ED/EDE	<b>01/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

-----

**E.4.7. Zabalbide Berri: etxebizitza gehiago eta saihebidetza edo kontserbatzea?****Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Dentsitate txikiko bizitegi-garapena eta hiriarekin lotzeko saihebidetza eraikitzea.	<b>05/25</b>
Bizitegi-garapen indartsua baztertzea (tokiko hirigintza-hobekuntzarik gabe) eta, horrela, saihebidetza eraikitzea baztertzea.	<b>02/25</b>
ED/EDE	<b>01/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

-----

**E.4.8. Basanoaga: babes publikoko etxebizitza edo ekipamenduak Aurrerakinak bi antolamendu-aukera proposatzen ditu. Zein da egokiena, zure ustez?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Indarrean dagoen plangintzan xedatutakoa, babes publikoko 20 etxebizitza egitea.	<b>03/25</b>
Alternatiba: ekipamendu publikoa, udal-igerilekuen mugakidea.	<b>04/25</b>
ED/EDE	<b>0/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

Gaur egungo igerilekuak urriak dira Errenteriako biztanleentzat. Udan ilara handiak sortzen dira eta jendeak ezin du haietaz gozatu

**E.4.9. Galtzarabordako kiroldegiaren mendebaldeko atzealdea: parkea, etxebizitza edo kiroldegi gehiago. Lurperatzearen hipotesiari dagokionez, hiru antolamendu-aukera daude. Zein da egokiena, zure ustez?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Parke bat Alaberga eta Galtzaraborda artean.	<b>02/25</b>
Galtzarabordako kiroldegia handitzea.	<b>02/25</b>
40 etxebizitzarako edukiera duen bizitegi-garapen berria. 16 babes publikoko etxebizitzetara dagozkie eta 24 etxebizitza libreei.	<b>03/25</b>

**Erantzunei gehitutakoak**

-----

**E.4.10. Agustinak: kultur ekipamendua eta etxebizitza. Antolamendu berriak honako hau proposatzen du: komentua sormenarekin lotutako kultur ekipamendu bihurtzea (Errenteriako Plan Estrategikoari erantzunez) eta Lousada kalearen aurreko partzelan etxebizitzak egitea (20 etxebizitza libre berri). Ados zaude?**

Bai <b>06/25</b>	Ez <b>0/25</b>	ED/EDE <b>01/25</b>
------------------	----------------	---------------------

**Erantzunen zehaztapenak**

-----

**E.4.11. Palaziozarra-Larretxipi: erabilera ekonomikoa, egoitza-erabilera ekonomikoa edo bizitegi-erabilera, aldaera garrantzitsuekin Perutzene/Sagasti eta Palaziozarra/Larretxipi eremuetarako, Aurrerakinak lau aukera proposatzen ditu, nahiko ezaugarri/erabilera desberdinak dituzten espazioak sortzeko. Zein da egokiena, zure ustez?**

<b>Herritarrek aukeratutako erantzunak</b>	
Indarrean dagoen plangintza dentsitate txikiko edo oso txikiko bizitegi-lurzoru gisa kalifikatzen da (Aurrerakin honetako 3. aukera).	<b>03/25</b>
Aurrerakinaren proposamena: haren xedea jarduera ekonomiko desberdinen erabilerak ezartzera bideratzea, hiri-eremutik (Agustinak) hurbil. Aurrerakin honetako 1. aukera.	<b>0/25</b>
1. aukera + etxebizitza: jarduera ekonomikoak, enpresa-parke edo antzeko gisa, non hirugarren sektoreko erabilerak ezar daitezkeen, baita bizitegi-erabilerak ere (Aurrerakin honetako 2. aukera).	<b>02/25</b>
3. aukera, baina dentsitate handiagoarekin: 3. alternatibaren aurreikusitakoa baino dentsitate handiagoko bizitegi-garapena aurreikusten da. (4. aukera Aurrerakinean).	<b>0/25</b>
ED/EDE	<b>0/25</b>
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
-----	

**E.4.12. Altzate: dentsitate ertaineko egoitza-eremu erregularra. Eremu hori dagoeneko antolamendu xehatukoa izan da: 189 etxebizitza, hirugarren sektoreko jardueretarako merkataritza-lokalak eta ekipamendu publikoetarako lurzatiak izango ditu. Iparraldean Lezorekin eta portuarekin lotura antolatu eta bizigarriagoa egingo du. Irtenbide egokia iruditzen zaizu?**

Bai <b>04/25</b>	Ez <b>1/25</b>	ED/EDE <b>01/25</b>
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
Udalak etxebizitza kooperatibak bultzatu behar lituzke. Ez enpresa batzuren interesen arabera etxebizitzak		

<b>E.4.13. Gaztaño</b>	
<b>Herritarrek aukeratutako erantzunak</b>	
Gaztaño auzoa eta erdigunea lotzen dituen tren-geltoki berriaren plaza nagusia.	<b>03/25</b>
Etxebizitzak kotxeren egungo kokapenean.	<b>02/25</b>
Egungo kotxeren kokalekuan eraikiko litzatekeen eraikinaren behealdeko merkataritza.	<b>0/25</b>
Egungo kotxeren kokalekuan eraikiko litzatekeen eraikinaren behealdeko merkataritza.	<b>0/25</b>
Garajeak egungo kotxeren kokalekuan eraikiko litzatekeen eraikinaren beheko aldean.	<b>03/25</b>
Geltoki berriaren eremua eta Gaztaño goiko aldea lotuko dituen igogailu publiko bat.	<b>03/25</b>

Autoentzako bidezubi bat, Gaztaño etorbidea eta Agustinen biribilgunea lotzen dituen, dagoen desnibela gainditzeko.

0/25

### Erantzunei gehitutakoak

-----

#### Ondorioak:

Erantzundakoen erdiak etxebizitza arazo bat dagoela aipatzen du. Aurrerakinean proposatzen diren etxebizitza kopuruez galdetzen denean kopurua egoki ikusten dute batzuek, baina gai honen inguruan ezjakintasuna nabari da. Etxebizitzaren gaiarekin lotuta, bi gai agertzen dira, alokairu sozialeko etxebizitzaren beharra eta eraikinak zaharberritzeko aukerak zabaltzea, balkoiak, terrazak...egin ahal izateko.

Esanbideko etxebizitza garapenaren kontrako iritzirik ez da azaltzen, erantzunda. Gamongoa-Loidiri dagokionez aldeko hautua egiten du gehiengoak baina bada kontrako iritzirik duenik. Honekin lotuta, proiektu honek Pontikarekin izan beharreko lotura eta etxebizitzaren altueren inguruko hausnarketa bat plazaratzen da.

Tolareberriri dagokionez, iritzien gehiengoak saihezbidea eraiki eta dentsitate baxuko bizitegi-garapenaren aldekoa da. Zamalbide Berri-ri dagokionez ere iritzi berekoak dira.


Basanoaga eremuari dagokionez, ekipamendu publikoa eraikitzearen alde egiten du gehiengoak, etxebizitza publikoko aukera ere gertu duela.

Galtzarabordako alternatiben inguruan hiru aukerak nahiko berdinduak daude, ez da erabaki argirik nabari.

Agustinen proiektuarekin adostasuna adierazten dute.

Palazio zaharra-Larretxipiri dagokionez, indarrean dagoen plangintza aurrera eramateren alde agertzen dira.

Gaztañori dagokionez, Tren geltoki berriaren plaza nagusi bat egitea, egungo kotxeren eraikinaren behealdean eraikitzea eta auzoko goiko aldea lotuko duen igogailu bat jartzea dira lehenesten diren neurriak. Etxebizitzak egitearen aukera aipatzen bada ere indar gutxiago du.



## E.5. EKIPAMENDUAK: MANTENTZEA ETA HOBETZEA

E.5.1. Ados al zaude printzipio honekin?		
<p><i>"Udalerrriak zuzkidura ugari ditu ekipamenduaren arloan, eta HAPOk horiek finkatzea proposatzen da. Hori esanda, ez da baztertzen berriz doitzea, hobetzea, lekualdatzea eta, jakina, (egoera demografiko kontinuista baten barruan) ekipamendu berriak irekitzea".</i></p>		
Bai 3/25	Ez 2/25	ED/EDE 0/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
La Paz parkearen inguruan komun publiko bat egitea gomendagarria izango litzateke, bertan gazte asko eta adineko pertsonak egoten baitira.		

E.5.2. Printzipio horretatik abiatuta, hainbat proposamen egiten dira. Horietatik, zein iruditzen zaizkizu egokiak? (Nahi diren guztiak aukera daitezke)	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Agustinetako komentua: zuzkidura publikorako erabiltzea (sormen kulturalarekin lotuta).	2/25
Arramendi: aire zabaleko kirol-pistak antolatzea.	3/25
Galtzaraborda: kiroldegia mendebalderantz zabaltzea (trenbidea lurperatzeak baldintzatuta).	2/25
Basanoaga: kirol instalazioak osatzea.	1/25
Gamongoa: parkeko ekipamendu-partzelak antolatzea, Beraundik gertu.	2/25
Irakaskuntza-ekipamendua: espazio nagusi batean irakaskuntza-ekipamendu baterako lurzorua gordetzea. Erabakitzen diren aukeren arabera definitu beharrekoa.	2/25
ED/EDE	0/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
Ekipamendua hirigunean baino ez dago. Landa-eremuak ez du oinarrizko ekipamendurik.	

**E.5.3. Zure ustez kontuan hartu beharreko hausnarketarik egin nahi duzu ekipamenduen inguruan (kirolekoak, kulturalak edo bestelakoak)? (Irekia guztiz)**

**Herritarrek erantzundakoa**

Gabon, iruditzen zait gutxieneko kirolak gehiago sustatu bihar direla. Inbertsio handia egiten ari da beraungo futbol zelaian, baina mataderoko skateparka zahartuta eta etengabe partxeatzen ari zarete. Nire proposamena hurrengoa da: mataderoko kirol gunea erabat berritua izatea eta kirol gutxituen inguruan giro ez lehiakor bat sortzea. Adibidez: Eskalada. Gune ireki bat sortzea Pumptrack. Arlo honetan oso atzeratuak gaude Gipuzkoako beste herriekin konparatuz. 40.000 biztanleko herri batek ezin du instalazio zahar eta txiki hau eduki. Gune berri batean 3 urtetik gorako pertsonak gozatu dezakete.

Ekipamenduak hirigunean baino ez daude.

Landa-eremuak ez du oinarrizko ekipamendurik.


Ikuspegi feministaren aplikazioaren ausentzia oso nabaria da

Fonderako BLEAk eskatu du Skate Park bat ezartzea La Paz parkean, gazteentzako eskaintza osatzeko.


Halaber, lehen aipatu dudak bezala, komun publiko bat parke honetan bertan.

**Ondorioak:**

Ekipamenduei dagokienez, HAPOan aipatzen den printzipioarekin ados agertzen da gehiengoa. Aipatzen diren esku hartze zehatzen inguruan, Arramendin aire zabaleko pistak antolatzea da gehien bozkatu dutena. Ondoren, Agustinetako zuzkidura, kiroldegiaren handipena eta irakaskuntza ekipamenduetarako lurzoru bat gordetzea. Lehenago aipatu bezala landa eremuan ekipamendu ezaren gaia aipatzen da.







## E.6. ESPAZIO LIBREEN SISTEMA OROKORRA ETA LOKALA: ERAZTUN BERDERANTZ

### E.6.1. Ados al zaude proposamen orokor honekin?

"Tokiko espazio libreen sarea hiri-eremuko eraztun berde gisa diseinatzen da, Oiartzun ibaiaren iparraldean dauden bi ertzetako pasealekuek osatzen dute, eta, eraztuna (edo "Berde zirkuitua") osatzeko, Fanderiako parkeak, Markola, Arramendi, Palaziozarra, Gamongoa, Esnabide eta Kaputxinok. Sare horrek 50 hektarea ditu, eta biztanle bakoitzeko 12,5 m<sup>2</sup> baino gehiagoko indizea da 40.000 biztanleentzako "

Bai 3/25

Ez 1/25

ED/EDE 1/25

#### Erantzunen zehaztapenak

Landa-eremuko biztanleak berdegunez inguratuta gaude, baina ez dago komunikazio-bide egokirik, ez dago bidegorririk, ez dago espaloirik, ez dago argiteria publikorik.

### E.6.2. Eraztun hori, haren espazioak, jarraitutasuna eta kalitatea gauzatzeko, Aurrerakinean zenbait jarduketa zehazten ditu. Zeintzuk iruditzen zaizkizu egokiak?

#### Herritarrek aukeratutako erantzunak

Gamongoa parkerako irisgarritasuna hobetzea Beraundik.

01/25

Alaberga eta Galtzaraborda artean pasabide bat sortzea.

02/25

Arramendi eta Palaziozarraren arteko jarraitutasuna berreskuratzea, bi parkeak lotuko dituen pasabide bat jarritz.

03/25

Lurzoru publikoak finkatzea, Listorretako, Lau Haizeta parkeko, San Markoseko eta Txoritokietako inguruneetan.

03/25

ED/EDE

0/25

#### Erantzunei gehitutakoak

-----

**E.6.3. Espazio libre eta/edo berdeen inguruan zure ustez kontuan hartu beharreko hausnarketarik egin nahi duzu? (Ireki guztiz)**

**Herritarrek erantzundakoa**


Nire ustez, herrian egunero erabiltzen diren parkeak zaindu eta sustatu beharko lirateke. Txirritarena bezala, emakumeen etxearen ondoan. Pontikan badago horretarako leku handi bat, gaur egun aparkaleku kutre bat bezala dagoena

Alaberga 49.etxean bizi gara. Parean egundoko lorategia dago umek jolas dezaten. Aitzitik, txakurren komun gisa erabiltzen da eta hau arautzeko beharra dagoela iruditzen zait.

Fanderiako erreka Papresari dagokiola jakinik, udalak erreka garbitzeko eta mantentzeko eskatu beharko luke.

**Ondorioak:**

Espazio libreei dagokienez, Arramendi eta Plazaziozarraren arteko lotura berreskuratzea eta Lau haizeta, listorreta... eremuetan lurzoru publikoa finkatzea dira lehentasunak. Hausnarketa indibidual bezala, gaur egungo parkeak zaintzea, eta Fanderiako erreka garbitzeko beharra aipatzen dira.



## E.7. GARAPEN EKONOMIKOA: ERABILERA MISTOAK HIRIAN ETA LURZORU BERRIA INDUSTRIARAKO

### E.7.1 Ados al zaude proposamen orokor honekin?

"Hiri-egituran, bestalde, dimentsio esanguratsuko merkataritza-erabileren ezarpena mugatzea proposatzen da, negozio txikia itotzea saihestuz eta erabilera mistoen alde eginez (bizitegi-erabilera/erabilera ekonomikoa). Industria-jarduera berriak erakartzeko lurzorua falta denez, lurzoru berriak gaitu behar dira hiri-inguruko eremuan "

Bai 05/25

Ez 0/25

ED/EDE 0/25

Erantzunen zehaztapenak

-----

### E.7.2. Morrontxo: 43.500 m2 San Markoseko hegalean

Bai 04/25

Ez 1/25

ED/EDE 0/25

Erantzunen zehaztapenak

-----

### E.7.3. Tolarieta: Masti-Loiditik hegoalderantz, bide-ardatzari jarraituz

Bai 04/25

Ez 1/25

ED/EDE 0/25

Erantzunen zehaztapenak

-----

### E.7.4. Egiluze: dagoena antolatzea eta hobetzea

Bai 05/25

Ez 0/25

ED/EDE 0/25

Erantzunen zehaztapenak

-----

**E.7.5. Intzinate: garatzea edo kontserbatzea, Planteatutako bi aukeretatik, zure ustez, zein da egokiena?**

**Herritarrek aukeratutako erantzunak**

Indarrean dagoen plangintza: kokagune hori zabaltzea eta, ondorioz, hura osorik berrurbanizatzea. Horretarako, GI-3671 errepidean biribilgune berri bat egitea aurreikusi da, baina orain arte ez da halakorik egin.	<b>03/25</b>
--	--------------

Aurrerakin alternatiboa: zabaltze-proposamena baztertzen du, dagokion araudia ezartzearen kalterik gabe.	<b>01/25</b>
--	--------------

ED/EDE	<b>01/25</b>
--------	--------------

**Erantzunei gehitutakoak**

-----

**E.7.5. Garapen ekonomikoaren inguruan zure ustez kontuan hartu beharreko hausnarketarik egin nahi duzu?**

**Herritarrek erantzundakoa**

-----

**Ondorioak:**

Industria garapenari dagokionez, ongi ikusten da markatzen den printzipioa. Interbentzioak baloratzerako orduan, Morrontxo eta Mahasti Loidiren kasuan bada kontrako iritzirik, beste kasuetan, baieztokoaren aldeko joera dago. Ez da aparteko ekarpenik egin gai honi dagokionez.

## E.8. LANDA-INGURUNEAREN ANTOLAMENDUA

E.8.1 Ados al zaude proposamen orokor honekin?		
<p><i>"Aurrerakinaren helburua da ekoizle berrien ezarpena erraztea eta nekazaritza-parke bat antolatzea, batez ere Frantzillan. Gainera, lurzoru urbanizaezinaren zonakatzeko globalerako proposamena aurreratu da. Jakina, kudeaketa-planek araututako naturaguneen babes bereziari eustea proposatzen da: Aiako Harriko Parke Naturala edo Añarbeko baso-erreserba, adibidez".</i></p>		
Bai 03/25	Ez 0/25	ED/EDE 01/25
<b>Erantzunen zehaztapenak</b>		
<p>Landa-eremuan, ur-hornidura hainbat iturburutako bilteten bidez egiten da. Komenigarria litzateke, halaber, babestutako iturburu eta zonen babesa familia-bilketa horietara ere eramatea, landa-eremuko biztanleen osasuna babesteko; izan ere, duela 2 urtetik hona iturburua kutsatzen duen kasu bat dago, Errenteriako Udalaren jabetzako zuhaitz batek eragindakoa, eta gaur egun oraindik ez da konpondu, udalari hainbat jakinarazpen egin zaizkion arren.</p>		

E.8.2. Ideia orokor horretatik abiatuta, Aurrerakinak zenbait lehentasun planteatzen ditu. Horietatik zeintzuk dira egokiak, zure ustez?	
Herritarrek aukeratutako erantzunak	
Ingurumenaren aldetik hobetzea: San Markoseko zabortegeiaren zati degradatua, harrobia eta Txoritokietako hegoaldeko hegalarren inguruan materialak isurtzeko dagoen eremua, Aldura inguruan ohartarazitako betelana.	03/25
Lau Haizeta Parkea Aiako Harriko Parke Naturalarekin lotzeko korridorea antolatzea.	01/25
Ur-bilketak eta babestutako eremuak: Landarbasoko kobazuloa, Aitzpitartera eta Añarbera. Babes hori Oiartzungo estuarioko eremu sentikorrera hedatzen da.	03/25
Gune interesgarri berriak katalogatzen ditu: Añarbeko urtegia eta udalerrian dauden hezeguneak, besteak beste, Pagosarde, Malmazar, San Marko, Igantzizabal eta Kutarro.	01/25
Paisaia-intereseko eremu berriak katalogatzen ditu: Añarbe, Zaria, Urdaburu, Igoi Akola, Aldura, Aitzpitarte, Txoritokieta eta San Markos.	0/25
ED/EDE 0/25	0/25
<b>Erantzunei gehitutakoak</b>	
-----	

### E.8.3. Landa-ingurunearen antolamenduaren inguruan zure ustez kontuan hartu beharreko hausnarketarik egin nahi duzu? (Ireki guztiz)

#### Herritarrek erantzundakoa

Hala eskatuta: naturagune babestuei dagokienez, eta bereziki Aiako Harriko parke naturalari dagokionez, uste dut beharrezkoak diren ekintzak sustatu beharko liratekeela haren hedadura guztia titulartasun publikokoa izan dadin. Horretarako, parkearen barruan dauden kokagune publikoak desagerrarazi behar dira (gaur egun 10), eta, horretarako, aurrera egin beharko litzateke, 2004ko HAPOan adierazten den bezala, besteak beste, horiek guztiak kontuan hartuz eta onartuz.

Honakoa eskatzen dute 5 pertsonak:

- *Solicito que se actualice el criterio de permutas en el Monte Publico Añarbe, al objeto de eliminar enclavados particulares. Tenemos numerosa legislación que apoyan esta petición:*

*--PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA 2004. Se hace mención a varios aspectos como "...buscar ampliación de los bosques...." "...mejorar la calidad de vida de sus habitantes...." "...actualmente no se considerara ninguna permuta para estos enclavados, AUNQUE ESTA POLITICA HABRA DE MODIFICARSE con el fin de tender a una adquisición paulatina de estos enclavados existentes en el monte, PARA ASI PODER FACILITAR LA GESTION DEL MISMO DESDE LA PERSPECTIVA DE UNA PROPIEDAD DE CARÁCTER TOTALMENTE PUBLICO...." --NORMA FORAL 7/2006 DE 20 DE OCTUBRE, de MONTES DE GIPUZKOA. En el capitulo II, articulo 14 Desafectación de montes demaniales, en su punto 2 dice "...la exclusión parcial o permuta de una parte no significativa de un monte catalogado podrá ser autorizada a propuesta de la Administración Forestal o de la entidad titular, siempre que suponga una mejor definición de la superficie del monte o una mejora para su conservación y gestión....". Evidentemente eliminar un enclavado favorece lo que anteriormente se describe. --DECRETO 241/1995, de 11 de abril de 1995, por el que se declara Parque Natural el área de Aiako-Harria, donde establece en el Artículo 11.-Derecho de tanteo y retracto. En su punto 3.- "Dentro de las posibilidades de los Departamentos correspondientes, se favorecerán los cambios de propiedad a través de permutas que permitan la adquisición, por la Administración Publica competente, de la titularidad de los predios situados en el interior del Parque Natural". Solicito que se tramiten a la mayor brevedad las permutas pendientes.*

#### Ondorioak:

Natur guneei dagokienez, ingurune aldetik degradatuak dauden eremuak hobetzea, eta ur bilketa eta babestutako eremuak Oiartzungo estuariora zabaltzea aipatzen dira lehentasun bezala. Bestalde, ur edangarriaren kutsatzea ekiditeko, gunek hauek babestea proposatzen da. Titulartasunari dagokionez, natur eremuak jabetza publikora pasatzeko neurriak hartzea era proposatzen da.

## E.9. ONDARE NATURALA, KULTURALA, ARKITEKTONIKOA ETA ARKEOLOGIKOA

E.9.1. Aurrerakinak ondarearen "katalogo" bat planteatzen du, babestu beharreko elementuak jasotzen dituena. Egokia iruditzen zaizu? Zerbait faltan botatzen duzu?

Herritarrek erantzundakoa

Egokia deritzot

# ONDORIO OROKORRAK

## ONDORIO NAGUSIAK EREMUKA

### AUZO BIHOTZAK

- Erreneria egiteko perspektiba oso on bezala ikusi da. Alde batetik auzo-bizitza indartzeko bide ematen duelako eta bestetik, Erreneria bera ere artikulatzeko zentro anitzeko planteamendu ona delako
- Asmoak onak, azpimarratzen da zentro aniztasun hori eta auzo-indartze hori, esku hartze konkretuagoetatik etorriko dela. Hortaz, HAPO-ak dagokion eremua arauturik ere, esku hartze plan konkretuetarago jatsi beharko da ideia: Espazio publikoa, mugikortasun sarea, irisgarritasuna, zerbitzu eta ekipamenduak, etab. Zehazteko neurriak
- Kokapenei begira oro-har asmatu dela esan daiteke. Hala ere badira begi-bistaz galdu behar ez diren 4 salbuespen: Alaberga, Gabierrota, Zamalbide eta Pontika. Hauetan egin diren kontraproposamenak kontuan hartu beharko dira eta Zamalbidek ere bere Auzo Bihotza izateko egin duen eskaerari ere jaramon egin

### ESPAZIO PUBLIKOA

- Auzo Bihotzen hobekuntzak eta hauek osatzen duten sarea da Espazio Publikoa hobetzeari begira dagoen erronka nagusia
- Aurrerakinak “espazio publiko estrategiko” bezala proposatu dituen bestelako eremuak oro-har egokiak dira. Adostasuna egon da egun betetzen dutela topagune funtzio hori eta planteatzen den mugikortasun eta irisgarritasun sare orokor horretan eduki dezaketela lotura funtzio bat
- Batez ere Auzo Txangoetan espazio publiko estrategikoetarako proposamenak egon dira, aurrerakinak jasotzen ez dituenak. Horiek banan bana hartu eta auzoari begira zein hiri-logikaren barruan duten zentzua aztertu beharko da eta dagokien kasuan lehentasunezko sare horretara gehitu beharko dira eremu horiek





## MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Eusko Trenbide sarearen lurperatzea Fanderiaraino egitearekin adostasun handia dago. Zailtasunak zailtasun, hiriak duen lehentasun bat da gehiengoaren iritziz.

Planteatzen den eskema orokorrarekin adostasuna handia da: Oinezkoen lehentasunezko 4 ardatz eta horiei loturiko bigarren mailako oinezko-ibilbideak, Auzo-Bihotzak konektatuz eta irisgarritasun unibertuala bermatuz. Bide horretan gaudela iritzi da eta hortik jarraitu beharra dagoela. Begi bistatik galdu gabe:

- Irogailuei begira egin diren proposamen berriak: Auzo txangoetan agertu direnak. Horiek aztertu eta egoki badira esku-hartzetara gehitzeko
- Bidegorriak: Ahal den kasuetan oinezko/bizikleta banatzeko beharra

Motordun ibilgailuen sareari dagokionez antzeko. Proposamen orokorraren logikarekin adostasun nabaria: Bi eratzun nagusi, sartu eta irteteko lotura egokiekin eta hauen barnean geratzen den hiri eremua oinezkoentzako berreskuratzeko apustua. Dena den, jakina da ez dela erronka erraza eta duda/kritika nagusiak, arreta berezia jartzekoak izan dira.

Aparkalekuen afera: Proposatzen diren berriak egoki ikusten dira, baina auzo batzuetan arazoa konponduko ez dela iritzi dute (Agustinak, Beraun edo Etxeberri kasu). Are gehiago, espazio publikoa ibilgailuei kentzera bagoaz, aparkaleku proposamena hobetu behar dela diote ahots batzuek

Aipatu sarea osatzeko zenbait esku-hartzeren aurrean:

- Alabergako biribilgunea: Espazio berdea kentzekotan ber-pentsatu behar denaren iritzia egon da. Gehiago zehaztu behar da esku-hartze estrategiko hau
- Gaztañoko zubi-bidea: Auzotar askoren kontrakotasuna argia da eta honekiko alternatiba edo egokitzapenak bilatu beharko dira
- Tomas Lopez kalea: Aipatu bi eratzunen lotura hori nola egingo den ondo zehaztu behar dela azpimarratzen da arazo handi bat sortu nahi ez bada



## HIRI ALTERNATIBAK

Eremu hirituan planteatu diren alternatiba ezberdinen iritzi eta balorazioak memorian egonik, bi orokortasun azpimarratuko ditugu:

- Kasu gehienetan etxebizitza berriak ez egitearen aldeko jarrera egon da eta izatekotan Babes Publikokoak izatea eskatu da
- Hiri barruan eremu berdeen falta nabaria duten auzo batzuetan, horiek babestu edo irekitzeko jarrera egon da askotan

Errenteriak etxebizitza eskaintza handitu behar duen, bai/ez eztabaida egon da etxebizitza berriak planteatzen zituzten esku-hartzeen atzean:

- Dakigunez, diagnostikoan jasotako datuetan oinarrituz, Aurrerakina idazten duen taldeak argi ikusi zuen: Ezinbestekoa da Errenteriak etxebizitza gehiago eskaintzea 15 urte bistan, etxe hutsik apenas dago eta hortaz garapen berriak behar dira
- Hiritar sektore batek dudan jartzen du behar hori eta iritzi honi loturik etxebizitza garapen batzuekiko kontrakotasuna adierazten du

Aipatu ardatzari loturik, alternatiben artean, aurre-ikusten zen bezala 3 izan dira eztabaidatuenak. Duten eskala eta inpaktuagatik bereziki landu dira:

- Altzate: Posturak nahiko argiak izan dira. Sektore bat hor eraikitzearen kontra agertu da (memorian jaso dira arrazoiak) eta argudiatu du ez dela egokia jada plan berezia onartu izana HAPO-a berrikusten hasi baino lehen. Beste sektore batek ez du gaizki ikusten eta Aurrerakinak ematen dituen argudioak ontzat jotzen ditu (etxebizitza, Iztiari arnasa eta lezo-pasaiarekin lotura erraztu besteak beste)
- Gamongoa: Aurreko Planetik egiten den egokitzapena oso positibo ikusten dute askok eta aipatu etxebizitza beharri erantzuteko alternatiba ona. Beste batzuek gehiegizko lur artifizializazioa dela iritzi dute
- Zamalbide eta Tolarieta: Adostasun kasik erabatekoa bertako etxebizitza garapenak behin betikoz alboratzearekin

## EKIPAMENDUAK

- Nahiko adostasun dago hasierako ideian: Erreterian ekipamendu falta ez da nabaria. Honela ez da hiri osoarentzako estrategiko izango den ekipamendu proposamen aipagarririk
- Proposamenak auzoei lotuak izan dira batez ere. Auzo Bihotzak auzo-topagune izan nahi badute, zenbait eskala txikiko ekipamendu beharko direla argudiatu da kasu batzuetan (memorian jasoak proposamen zehatzak)
- Ekipamenduei begira eta hauen proposamen edota dimentsionamenduari begira 3 elementu kontuan hartzeko eskatu da etengabe:
  - Ekipamenduak askotan giza baliabideak behar dituztela jendeak erabili ditzan eta ondo erabiliak izan daitezen
  - Egun duguna ondo mantendu eta kasuan kasu eraberritzea dela lehentasuna
  - Auzoetara zerbait deszentralizatu behar bada ondo neurtzeko: Bikoizketarik eta baliabide xahuketak ekidin eta hiriaren osotasun-artikulazioari kalterik ez egiteko

## GARAPEN EKONOMIKOA

- Hiri barruko perspektibari dagokionez nahiko ados “erabilera mistoa, tokiko komertzioa, auzoan garapen ekonomikoa” etab. bezalako ideiekin. Dena den, printzipio egokiak izan arren, zehaztapenik ez dela azpimarratu da
- Jarduera industrialentzako zoru berriak eskaintzeari dagokionez: Orokorrean onartzen da behar dela lur zoru berria ordenatu, zentzu honetan Tolarieta hobesten da Morrontxoren aurretik (honek duen nekazal balioa kontuan izanda). Azpimarratzen da: Arautu ahalik eta hoberen bertan kokatuko diren enpresak lanpostuak sortzen dituzten enpresak izan daitezen (lurzoru/lanpostu ratio ahalik eta onena)
